

# EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN  
ERRI AKADEMIA

XX Zenbakia.

1992

Uztaila-Iraila

## AURKIBIDEA

Orr.

Gaztediari ongi etorri.— B. Madina (Barruko azalean).	
IX Mendean 872'ko lau larruki.— Latiegi'tar Bixente .....	1
Euzkeraren arerioak.— U estarazu'tar Andoni . . . . .	11
Periko Fortunaren Astapenak.— Arrinda'tar Anes .....	14
Illetak joaz.— Aita Onaindia .....	33
Euskal-Erriaren etorkizuna. —Albisu'tar Anastasio .....	36
Bere eta Aren arazoa.— Arrinda'tar Anes .....	46
Ondarroako abizenak.— Zubikarai'tar Augustin .....	50
Aita Villasante'ren aolkuak.— Kortajarena'tar Andoni . . . . .	57
"Eibire Andereño" sariaketak .....	59
Mungialdeko esaerak.— Legarreta'tar Asier .....	61
Gure folklorea.— "Txori-Erreka" .....	63
Erri esaerak.— Esaeradun liburutatik (Barruko azalean)	
Esaldi jatorrak.— Oñatibia'tar Manu (Kanpo azalean)	

**Zuzenbideak:**

**GETARIA 21 - DONOSTIA  
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

# GAZTEDIARI ONGI ETORRIA

Ogeigarren gizaldiko azkenengo amarkadan aurrera goaz, eta gazteak dantaten oztopoa aundia dala ikusita, asiera eman diot. Gaztedia etorkizuna danez, Euskalerrian bertan, agerian dago alako aize edo oitura erbestetarra ari zaigula emen lanean gure oitura onak galerazi naian ogia. Askatasuna ere gurea degu Euskalerriko euskaldunon iragarria, eta oraindik garaian gaude gure gaz tedia emen Euskalerrian jatorra izan dedin, gure asabaengandik artutako erakutsiak gaurkotu, obeagotzen alegindu, gure Euskalerria euskalduna, gaztedi jator bati dagokion bezela. Gaztedia Euskalerrian, geiegikerak jota agian agertzen da, (ori gazteak) eta zaarraguak zer? Begira, gazteak eta zaar'ak edo elduok danok degu zerbait luzeegi edo arotzegei eta aurrera eguzkiak danok berotzen gaitu eta. Euskalerrri berririk ateratzea eziña da gaztedi berria bezelaxe. Izadia ez dezagun elkartu irudiarekin, esparru ezberdinekoak diralako. Sinjsmena ere emen dabil ate-joka berela (jakiña), askatasuna degu emen ere onartu ala ez, gure ongi naia bera alegia. Bizitza ontako asiera eta bukaera gure esku balego zer? naiz gaztea edo zaarragoa izan errukarriak izango giñake duda gabe. Orregaitik Ñazaret'eko Jesusen erantsia eliz-ama pekatariaren babesean onartuaz, Euskalerria, euskaldunok egiten deguna izango da. Alegia, guk maite maite degun neurrian, iateral-dial, ere badirudi onek baña kanpokoia ohea egiten bazaigu, kanpokoak izango dira Euskalerrriaren jaun da jabe. Orregaitik gaztedia da biarko euskalduna eta gidaria Euskalerrian.

Aurreko gizaldian izan zan gizon bat, Italiarra bera, apaiz mixiolaria eta geroago gotzaia ere... Eta berakj utsi zuan Afrika bere bitartez ebanjelizatu, eta aurrera ateratzia Afrikako beltzen bitartez alegia. Egunak eta urteak ere baltzak jasan bear izan zituan, hai osasun aldetik eta ango giroa aurrera erarnaten eta alaere, begira, bere lana igaria atera da, Kortabarri'tar Daniel, 1831-1881, izan zan eta bere lagunak. Lan bikaina egiten ari dira orain ere beste jakintzan, erlijioa, apaizgai eta zenbat lan arruntetan.

Orain eta emen Euskalerrian, geiegikeriak jota edo agian agertzen gerala eta ongi etorria emanaz asi naiz gaztediar eta izan ere errua zarraguona ere bada, edo bearbada geiago.

Orregaitik dei bat iragarriko nuke Euskalerrian, aurrerago Afrikan gertatu dana emen ere alegindu gaitezen gure-gurea degun lurreean, erlijioarekin, sendia, lantegiak, baserrie, otoi'tza, bataioko agindu, euskera eta beste..., sinismenean euskaldun askatasunean begirune izan, geiegikeriak zabarkeriara eraman baño len. Pozgarria ere bada au, neri beintzat poza ematen dan era ontako asmoak idazteak, ogeigarren gizaldi oni bukaera ona emateko itxaropenarekin eta datorrenari obeki jarraitzeko ¿Bestela ez ote da jakintza era aurrerapen danakin, Euskalerria eta gizadiari bear digun ardura eta duintasuna alperrik galtzea?

BENIGNO MADINA

EUSKERAZAINTZA

ISBN: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition, Bilbao

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAZ



## IX MENDEAN 872'KO LAU LARRUKI

Larru auei ortza sartu aurretik, amai dezagun joan diran "EUSKERAZAIÑ-TZA"ren zenbakietan eskuartean erabili dugun 871'ko larrukiaren azterketa. Bi gauza utzi genituan aztertzeke: Bertan agertzen diran Doneen zerrenda, eta, larruki orren bidez Okoizta'ko Donebixente'ri eman zitzaizkion aberastasunen kopurua.

Irutasun Doneaz eta Gurutze Deunaz gaiñera, 23 iru dira larrukiak aipatzen dizkigun Done-lzenak.

Trinitate Doneaganako eraspina oso goiz sortu eta sakonki sartu zan Euskaldunen artean. Azkar ezagutu zituzten noski Ñizea eta Kostantinopla'ko Kontzilio Ekumenekoietan artutako erabakiak. Eraspén orren lekuko dira, Irutasun Doneari gure mendietan eraikitako basa-jauretze zaarrak, Aginaga erri naparraren gaiñekoa bereiziki.

Era berean dugu zaarra Gurutzearenganako jaiera, etxeetako ateetan, landetan, bide-ertzetan eta mendi-gaiñetan gurutzea ipintzeko oitura zaarrak adierazten digunez.

Larrukiko 23 Doneei dagokienez berriz, poliki-poliki mozarabitarren egutegia XI mendearen azkenean euskaldunon gizartera sartzén asia zitzaigula adierazi nai dugu noski Done oien zerrendak.

Izan ere, 23 Done oietatik, 9, bisigoten edo mozarabeen santutegietakoak dira. Ala adibidez, Azisklo, Emeteri eta Zeledon, Justo, Bixente, Felis, Fructuoso eta Ildefontso. Eta baita "Santa Gratia" ere, "Grazia" ori Engrazia baldin ba'da beintzat.

Baiñan euki dezagun gogoan, Done oietatik batzuk, —Emeterio, Zeledonio eta Bixente—, orduan Euskalerrria zan lurraldekoak zirala, Felis, Errioxa'ko Donefelizes izan daitekeala, eta gelditzen diran bostetatik ia danak, bisigoten Donetegian agertzeaz gaiñera Eliz orokorraren Donetegian ete agertzen dirala.

Bisigoten kultura, mozarabeen bitartez, gugana sartzén asia ba'zan ere, ongi motel asi zan noski sartzén, eta aski geldi.

Alatagustiz, Doneildefontsa Toledo' ko goigotzai bisigota mozarabeen Donetegikoa dalarik, naitanaiez aitortu bear dugu asi zitzaigUla bisigoten liturgia gure artean zabaltzen.

Ez da arritzekoa, V mendean bisigotak Akitani'ra iritzi ziranez gero, aien alboan bizitu bait ziran beti euskaldunak, naiz bosteun urtez ia beti alkarren artean borrokan ibilli: iparrean aurrena, egoan gero, eta sarkaldean geroago, Asturietako errege bisigoten aurka.

Gure larruki onen aroko euskaldunen artean aundia zala dirudi Salvatore Doneaganako eta aren Ama Ñeskutsarenganako eraspina. Eliz bat aipatzen du larrukiak Salvatore izenekoa, eta iru, Miren Donearen izenekoak: Arganzonigoa, "Ganna" koa (Gauna'koa?), eta Letona'koa.

Badu Donmemartin Tours'ekoak Estabillo'n ere bere eliza.

Oso maiz agertzen da Martin Donearen izena Euskalerriko Larruki zaarretan, Konpostela'rako ibildeunketak indarra artzen asi baiño mendeak leenago. Ez da beraz egia, Frantzi'tiko erromesak izan zirala Martin Donearenganako jaiera gugana ekarri zutenak.

Jaiera ori, berez sartu zitzaigun. Auzotik auzora. Auzokoak bait ziran, orduan oraindik euskalduna zan Dordoña, eta iparraldetik aren ondoan zegoan Turena. Eta Donemartin berriz Turena'ren uriburu dan Tours'eko gotzaia izan bait zan.

Badaitekean gauza da gaiñera, IV mendean, bere gotzai-uritik urruti ere, erri eta errisketako jendeen apostolu izan zan Martin Donea, Dordoña'ko eta baita Akitani'n beeragoko euskaldunen artean kristautasuna ereiten ibilli izatea.

Larruki au idatzierazi zuten euskaldun aien aberastasunak, aski ugariak noski, nekazaritzari dagozkion aberastasunak ziran:

Soroak ("terris"), alorrak ("agros"), baratzak ("ortos"), mastiak ("vineis"), lierri edo liñu-lurrak ("linares"), belardi gizenak ("ferragines"), zugaitz zituemalleak, sagastiak seguruaski, ("pomares"), intxaustiak ("medio nozal"), eta errotak edo igarak ("molinos").

Gaur egun Estabillo'n mastirik ez da. Bai ordea andik amarrenbat kilometrorra dagoan Berantebilla'n. Erdiaroan ugari ziran mastiak Araba guztian. XIII mendean batez ere, baiñan au ez da arritzekoa, izugarri beroa izan bait zan Europa guztian XIII mende artako giroa. Ñoruega'n bertan ere izan ziran orduan mastiak; eta egiten zan an ardoa. Txakoliña, noski.

"Medio nozal". Ez zait erreza gertatu "nozal" ori zer izan zitekean jakitea; laterazko itza ez bait da. Ezta erdiaroko latera baldarrekoa ere. Ez dute beintzat iztegiek aipatzen. Ezta erdiaroko lateraren iztegiek ere. Ez dute ezagutzen gaztelerazkoek ere: Corominas'enak adibidez. Eta ez da arritzekoa; itz ori Leonigo jaurerrian itzegiten zan erromantzekoa bait da, azkenean Marin Alonso'ren iztegiak argitu didanez.

Orrek zer esan nai duan? "Medio nozal" ori ez zuala larruki onen lenengo idazleak idatzi. Larrukia geroago aldatua izan zala; eta Leon'en ainzuzen, izan zala aldatua. Orregaitik, aldakuntza ori egin zuanak sartu zigun noski, larrukiaren azkenean Asturi-Leonigo erregearen izena, abertzalekeri traketsak eraginda.

Orrelako aldakuntzak eta erasketa zikiñak, asko egin bait zitzaizkien gure Euskalerriko larruki zaarrei. IX mendean ez zan gaiñera oraindik Leon'en erromantzerik sortu.

Baiñan barruan gelditzen zaigu, lenengo lumalari arek, geroagoko leondararren "nozal" orren tokian zer idatzi zuan jakiteko guraria. "Intxausti"ren antzeko zerbait? Ta Leon'en bizi zan lekaide euskaldun batek esan ote zion beste lumalari leondar larruki-aldatzaille ari, "intxausti" Leon'go izkeraz "nozal" esaten zala?

Baiñan gure jakite-egarria ez da aserik gelditzen. "Medio nozal", eman zioten gure larruki onen egilleek Okoizta'ko Lekaidetxeari. "Ñozal" aren erdia bakarrik!

Ainbeste eta alako aberastasun aundi ugariak Okoizta'ko Lekaidetxeari eman zizkioten jaun-andre ospetsu aiek, zergaitik intxuarretara iristean intxaurrondoan kopuruaren erdia, erdiak bakarrik! eman ote zioten? Ez du zentzurik. Au da, baike, Euskalerrian aurki dezakegun intxaurren lendabiziko aipamena. Baiñan ain gauza guragarriak ote ziran euskaldunentzat intxaurreak? Ez noski.

Larrukian "intxausti" idatzi zuan lumalari ark, intxaurren-sail bat ez baiña, ez ote zuan toki-izen bat adierazi nai izan? Intxausti izen-zuan alor bat? Baleike. Baiñan, naiz intxaurren naiz alorra, ez da erreza, beste gauza guztietan ain eskuzabalak izan ziran gure adiskide aiek, puntu ontan "medio nozal" besterik ez emáteko, ain zeken zergaitik agertzen zaizkigun igartzea.

Baiñan lurrez ain aberatsak ziran gure larrukiko jaun-andre aiek, 17 elizen jabe ere baziran, eta guztia eman zioten Akosta'ko Donebixente'ren lekaide-txeari.

Guztia, "gure pekatuen barkapenerako eta gure gogoak goi-argiz bete daitezzen". Irutasun Deunari zioten eraspena aipatu dugu. Garai zaar aietako dokumentu guztiak asten dira Irutasuna goretsiz. Polita lateraz, gure larruki onek egiten duan Irutasunaren aipua, naiz idatzia izan zan izkeratik ateratzean bere politasuna galdu:

"Beti bat jarraitzen duan zertasunean Sorgabearen eta Sortuaren eta (biengandik) Datorrenaren izenean" esanez, asten bait du lumalariak bere idazte-lana": "In nomine ingenite, prolisque, ac procedentis, conexa semper natura unius trinitatis".

"Ederki esana"! oiueginen zion Atanasio Doneak Ñizea'ko Kontzilioan ori idatzi zigun lumalariari.

Larrukiaren izenpeketa, "Albontsa Obiedo'n errege, eta Diego Gaztelerrian konte" zirala esanez egiten da: Aldefonso rex in Oveto, eta Didaco comite in Castella".

"Aldefondo" ori, izen ortako irugarrena zan (866-910). Baiñan 871'n, ez Estabillo'n ez Okoizta'n Asturietako errege batek zer egiñik ez zuan. Ezta Gaztelerriko konteak ete. Ori guztia larruki oni geroago erantsitako gauza da segu-ruaski. Ez bait da sinistekoa, Leonidik etorri ziralako, larruki onen egilleek, Asturietako erregearena ez zan lurralde batean aren izena gorai patuz larrukia izenpetu nai izatea.

Igaro gaitezen besterik gabe 872'ko larrukietara. Idazki zar oietatik iru, egun bat berekoak dira, Uztaillaren 4'ekoak. Laugarrenak ez digu egunaren ezagubiderik ematen. Eta, naiz lumalari ezberdiñen lana izan, keraz edo estiloz oso antzekoak dira. Ta kera edo estilo ori, ez da Kukulla'ko Donemillan'en lekaide-teko beste idazki zaarrena bezalakoa. Oso ezberdiña baizik.

Ez dirudi IX mendekoak diranik ere, geroagokoak baizik. Ez zait beintzat neri IX mendekoak izan daitezkeanik iduritzen. Antonio Ubieta Arteta'ren luburuan datoz, baiña urtearen aipua galde-ikurraz dakarte, Ubieta berak ere urtegarrenaren egiztasuna zalantzan ipintzen duala adierazi naiez. Luziano Serrano'k bere liburuan ez dakarzi.

Orregaitik arinki aztertuko ditugu guk ere.

Larrukian esaten diran guztiak orduan oso-osoan euskal-erria zan lurraldean gertatzen dira: Miranda inguruko eta Tobalina'ko aran eder polittetan, Oron eta batez ere Puron ibaiaren ertzetan.

Larrukia idatzierazi zutenak, onako auek ditugu: "Paulus abba", -Paul abata-, "Johannes presbiter" -Jon bereterra-, eta "Ñunno clerigo" -Ñuño elizgizona, (lekaide utsa, seguruaski-).

Aurreneko biek, Paul'ek eta Jon'ek, Eliz orokorreko santuen izenak daramazkite; irugarrenaren izena berriz, Ñuño, euskalduna da. Ez dugu beraz oraindik bisigotikeriaren kutsurik.

Beren "oben-pillo izugarriak zapaldurik, Doneen merezimenduetan sinistea ta itxaropena jarritz", egin ornen zuten larruki ontan aipatzen duten eskeintza oparoa: "peccatorum mole depressis spen fidutiamque sanctorum meritis...". Eta egiten dituzten emaitzen zerrenda damaigute bereala. Ta emaitza oiek aipatzean, toki izan auek aipatzen dizkigute:

FERRAÑ	POÑTEZERZI	FOCILIO	CAÑALEGGA
FOCE	PURON	LABIETAS	CAMPIELLO
CASTELLEÑSE			

Aztetu ditzagun izen oiek banaka. Baiñan egin dezagun aurretik betiko oarmen irukoitza:

Izen oiek, zerao euskaldunak ziran lurraldeko toki-izenak dira.

-Lurralde artan ez zan oraindik gaztelerarik itzegiten, gaztelera orañdik, IX mendean, sortu gabe bait zegoan. Ez zan arabierarik ere itzegiten, arabiarrek euskaldunen etsaiak ziralako. Eta bisigotak, beti, arabiarrek ere baiño askoz etsaiagoak izan ziralako eta oraindik -Asturietatik- izaten jarraitzen zutelako..., ez zan gure lurralde aietan bisigoten laterarik ere sekulan itzezin. An, soilki euskera itzegiten zan.

Orregaitik, euskaldun aiek beren toki oiei euskerazko izenak ipiñi zizkieten; eta gaur, larruki ontan zerao aldatuak eta itxura-gabekoak agertzen ba'zaizkigu, ori, izen aiek lumalariak gaizki entzunak eta okerrago idatziak izan ziralako, edo laterara itzuliak ala erdi-itzuliak izatean itxura galdu zutelako, edo geroagoko berr-idazkietan, beren aurreneko itxura aldatu zutelako dala, aztu bear ez dugun gauza da.

Azkeneko ori ez zaizuke arrigarri gertatu bear. Berealexe ikusiko duzun bezala, gaur bertan, ikasketa zail luzeen bidez ortarako gertuturik dauden jakintsuei ere, gaitza gertatzen bait zaie bein baiño geiagotan, larruki zaar aietako itzen irakurketa ziurra.

Ez da beraz arritzekoa, IX mendeko larruki baten itzak birr-ematean, gaurko jakintsu auen gertukizunik ez zuten XI mendean onuntzako lumalari aiek oker ibilli izatea.

Orain, emen, gure lana, itxuraz aldaturk datozkigun izan oien egiazko itxura nolakoa zan asmatzen saiatzea izanen da, Ez da merezimendu aundiko lana

izango. Ortarako liburu ugari bait dugu Gazteiziko gure apaizgaiteko liburute-  
gian. Baita geiegi ere. Ugaritasun orrek, denbora asko galduerazten bait dizu,  
danak ikusten asten ba'zera.

\*\*\*

FERRAÑ.— Idazki askotan "H"z ikusiko duzu: HERRAÑ. Beste batzuetan  
"H"rik gabe: ERRAÑ.

(Esan dezagun, irazean bezala, larruki ontako toki eta giza izenetan ez zai-  
gula "H" bat bakarrik agertzen, "Johannes" giza-izenaren bat ura izan ezik.

FERRAÑ au ez da larrukian datorren izena, larrukiaren izenburuan baizik,  
Kukulla'ko larruki bakoitzat bait bait du bere izenburua, idatziak izan ziranetik  
askoz geroago norbaitek ezarria.

Onela dio gure larruki onen izenburuak: "De incoatione monasterio Sancti  
Martini de Ferran, et de eius termino": "Ferran'go Donemartiñ'en lekaidetxea-  
ren astapenez eta bere jabetzako lurraldeaz".

Larrukian ordea ez da Ferran'ik aipatzen. Izenburuaren egilleak,

Pontecerzi eta Ferran, erri bat beraren bi izen zirala uste izan zuan. Eta ez  
zan seguruaski oso atzipeturik ibilli.

Geroago ordea, XVII mendean, Florez Aita ikerlari ospetsuak, Pontecerzi  
eta Jon Balpuesta'ko gotzaiak elizbarruti orren sorkuntzakoan aipatzen duan  
Pontacre nasi zituan, ikusiko dugun lez, eta bere atzetik eraman ditu ondoren-  
go ikerlari guztiak, Franzisko Cantera Burgos mirandarrak Pontacre ta Pntece-  
ezi bi uri zirala "Hispania" aldizkarian (1.943, 8-15 or.) erabat argitu zuan arte.

Bá, naiz arazo ori 1.943'az gero argiturik egon, 1.976'ean onela damaigu  
Antonio Ubieta Arteta'k larruki onen aurkezpena: "El abad Paulo, el presbítero  
Juan y el clérigo Nuño edifican la iglesia de San Martín de Pontacre y Ferran".

En nintzan ni ere, nere ekintza utsez, Pontacre eta Pontecerzi bi erri ziranik  
oartuko. Gaiñera, bat bakarra zala uste nuan erri ori, non arraiu egon zitekean  
ezin egiztatuz erdi-eroturik nenbillen. Azkenean, gure apizgaitegiko liburutegia-  
ren zaindariatako bat dan Anjel Ibisate apaiz adiskide txit jakintsuari eskatu  
nion argi, eta onek eman zidan korapillo gaitz au askatu aal izateko giltza. Ar  
bitza Ibisate lagunak nere eskerrj'k onenak.

FERRAÑ edo HERRAÑ edo ERRAÑ ori, orain Burgos'koa dan eta orduan  
euskalduna zan Tobalina izeneko aranean zegoan. An dago gaur, Garoña'ko  
nuklear-indar-ola.

Euskalerritik-at ere badira Herran bat baiño geiago, baiñan ez dute gure  
Erran'ekin zer ikusirik. Latin-itxura aundia artzen du izen orrek, aurretik "F" bat  
jartzen ba'diogu: FERRAÑ. Laterarik ez zekjan erri euskaldunak ordea, IX  
mendean, bere lurraldeko txoko bateri ez zion eskierki laterazko izenik eman.  
Erran'en "F" ori, eta geroagoko "H" a, lumalari latinzaleen asmakizunak dira.

Oña'ko dokumentu batez ari dalarik, "H"rik eta "F"rik gabe damaigu erri  
onen izena Luciano Serrano abatak: Erran.

\*\*\*

ERRAÑ.— Ori zan ezpairik gabe erri aren izena. Erran.

Erran bat, bada gaur ere Mena-Aranean. "ERRA" aurritzki duten itzak berriz  
ugari ditugu. Erramendi, adibidez; edo Errantz, Errandi, Erranpe eta abar.

Erranburukea, Araba'n Amarita'ko toki-izen bat da. Eta Errandoa, naiz au agian Errando giza-izenetik etorri, Ñaparroa'n Argiñariziko alor bat dugu. ERRA berriz, ez aurrizki ez atzizki, ERRA utsa, oraindik Arjentina'n bizirik diraun euskal-abizan bat ornen da, Kerexeta'k dioskunez.

Izen orren etimologia? SASITOKI. Gazteleraz, "zarzal". Kerexeta'k diona, ots, "erra" "erro"ren aldakuntza dala eta "erro"k berriz "sasi" esan nai duala, egia ba'da belntzat.

Ñere iritzia? Baleikela esango nuke nik, —"erro"k "sasi" esan nai duala egia baldin ba'da beintzat.— Ñere ustez "ERRAÑ" orrek gazteleratua izaterakoan "TZ" atzizkia galdu bait zuan. Eta orain bai, atzizki ori itzultzen ba'diogu, ERRAÑTZ, "sakitoki" izango bait litzaiguke.

Ai! baiña... "Errantz" ori..., ARRAÑTZ ez ote da?

Aiztintxe aipatu ditugun "E"z asitako izen aietan ere, asierako "E" ura ez ote da "A"ren aldakuntza? Gure toki-izenetan, itzen asierako "A", oso errez "E" biurtzen bait zaigu. Astarrona, Estarrona; Askarza, Eskarza; Arragain, Erraga<sup>in</sup>...

Aurreneko izkia "A" izatekotan, AR, ots, ARRI, izango luteke izen oiek danak bere etimologiaren sustraia.

**PONTECERZI.**— 804'ean, Balpuesta'ko lenengo gotzaia izan zan Jonek eta urte bereko beste larruki batean II Albontsa asturiarrak aipatzen zuten Pontacre ura eta Pontecerzi au erri bera dirala urte izan da, naiz orain iritzi ori zuzena izan daitekeanik uste izan ez. Dana dala, Jon gotzaiaren POTANCRE, Albontsa erregearen POTANĀCAR eta gure larrukiko PONTECERZI au, erri bat beraren izenak ba'dira, erri orrek izen asko jaso dltuala aitortu bearrean aurkitzen gera.

Ikus izen oiek:

PONTACAR, II Albontsa Asturietako erregeak 804'ean, Balpuestea'ko elizbarrutiaren sorkuntza legezkoa egitean.

POTAÑZE, Ñaparroa'ko III Garzia Santxorena erregeak 1.045'ean, Kukulla'ko Donemillian'i egindako emaitza batean.

POTAÑZRE, an bertan dagoan Bujedo'ko lekaidetxearen larruki-bildumak. Badirudi, izen-kera au, Potanze, lekaidetxe ortan sortua dala; maiz agertzen bait da bertako larrukietan. Alatagutziz, izen ori bera darabilki Jon gotzaiaren idazkiaren 1.236'ko kopi batek ere: POTAÑZRE.

POTANCURI, 1199'an III Inozentzio Aitasantuak Donemillan'en Kukullako lekaidetxeari emandako bulda batean.

POTAÑCURI urte berean Miranda'ko agiritegian gordetzen diran larruki batzuek ere.

**POTANCURI, Miranda'ko Foruak 1.099'an.**

POTAZURI Mjranda'ko beste larruki batek, oartzeke "Ñ" a idatzi gabe utzi, eskierki.

POTAÑCRI, 1.256'ean Bujedo'ko larruki batek, seguruaski uste gabean "C"ren ordez "C" bat idatziz.

**PATAÑCURI, Miranda'ko Foru berak bein, lumaren irristaketa baten erruz, noski.**



POÑTACRE, Florez Aita ospetsuak "España Sagrada"n.

POÑTEOERCI, Florez berak, baiñan ezpairik gabe, irarkolak sartu zion "O" orren tokian "O" idatzi zuan berak.

POÑDAÑZRES, Luziano Sarrano Aba beneditarrak Oka'ko lekaidetxeari buruz egindako idazki batean.

Florez'ek gaiñera, oso eimologi pitxia damaigu, bere Pontacre aren erroak agirian ipintzeko. Entzun berari:

"POÑTECERCI ó POÑS ACER: Así llamado por motivo de un aqüeducto formado entre dos peñas por donde era preciso caminar la gente, y el río lo impedía: pero haciendo montar el agua sobre el aqüeducto, abrieron paso y llamaron al sitio POÑS ACER ó ACERBUS, vulgarmente POÑTECERCI, en el valle de Tobalina entre Frías y Miranda" (Esp. Sagr. XXVI, 90-91 or.).

Ameskeri utsa guztia. Gizon aundiek ere, —eta gizon aundia izan zan Florez, XVIII mendean—, badutela ametsezko etimologi parragarrien asmaketarako joera.

Ez zaitex gure larrukiko erri aren orrenbesteko izen-aldaketaz arritu, izenen ugaritasun ori larruki zarretan maiz gertatzen da-ta, orrela etimologigintza zailagoa biurtuz.

Gaitza izan oi da betiere larruki zarren irakurketa. Ta gure onek gaiñera badu, bere idazkeraren erruz, zailtasun bereizi bat.

Erdiaroan, "Ñ" izkia, bokal edo izki lagungabeen gaiñean lerro bat ipiñiz ematen zan. Bá, Miranda'ko Foruak damaigun Pontapuri edo Potanpuri izen ortan, Cantera Burgos'ek dionez, ez omen da erreza lerro ori "O"ren gaiñean, edo "A"ren gaiñean dagoan asmatzea: itza, alegia, Pótapuri (POÑTAZURI) ala Potázuri (POTAÑZURI) dan asmatzea.

Danadala, itz ori, euskalduna ote da? Beste galde bat egin bearuko genduke aurrena. Zer ote zan erri orren egiazko izena?, euskaldunek eman zioten izena?

Baleike, egiazko izena Miranda'ko foruak ematen diona izatea; beren mugetan bait zeukaten mirandarrek erri ura. Orrela ba'litz, POÑTAZURI genduke egiazko izen ori. "Pont", "zubi" dala badakigu. Ta nork ez daki "zuri" zer dan? Asiko al gera besterik gabe, erri aren izena ZUBIZURI zala oiukatzen? Bai? Ta..., erri aren izena "pontazuri" ez baiña "pontaz-uri" ebakitzen ba'dugu... zer? Orduan, ZUBIURI irtegu litzaiguke.

Ñere gogoz, gustorago emango nioke bigarren eral nere onetsia, Zubi-uri edo Zubi-iri, euskerak berea duan etimologi-erarekin Zubi-zuri baiño obeki konpontzen dala bait derizkiot. Margo-izenak, gutxitan erabili ditu euskerak toki-izenak sortzeko.

"Gorri" adibidez, toki-izenetan, (Arrigorri, Larragorri, Medigorri, Muñagorri) ez da ia beñere margo-izena, Ategorrieta bezalako itzetan izan ezik; "astegorri", "larrugorri" eta "negugorri" itzetan ere margo-izena ez dan bezala. Eta "zuri" ere geienetan "zuri" ez baiña "uri" dugu (Muñaz-uri, Albiz-uri, Gomez-uri) BORDAZURI bezalako izenetan izan ezik.

Masrgoei-buruz, onako arau orokor au eman genzakeala derizkiot:

Euskal-etimologintzari dagozkionetan, margo-izenak, gizakumeak morgoz ornitzen dituan gauzetan bakarrik dira margo-izen, agian salbuespen bakan batzuetan izan ezik.

Arau ori nere ariketa bakarrak oiñarritzat artuta nik neronek asmatua dala-ko, ez da bearbada garrantzi aundiko araua izanen. Danadala, pozik zuzendu-ko dut nere okerkeria, eta baita eskerrak eman ere, norbaitek nere sorketa ori okerra dala egiztatzan ba'dit.

\*\*\*

Baiñan..., mirandarrek, beren mugetan zeukaten erri aren izena nolakoa zan jakiteko ziorik aski baldin ba'zuten ere, bazuan ori bera jakiteko arrazoi ederra, odolez erdi-euskotar eta, agian, izkuntzaz osoki euskalduna zan Asturietako Il Albontsa erregeak ere. Fruela erregeak Euskalerrian lapurtuta eramandako eta gero bere emazte egindako Muña neskatil euskaldun aren semea bait zan. Eta Euskalerrian bizitua, bera ere.

Bá, Il Albontsa dugu, gure erri ari beste iñork baiño leenago, dokumentuetan, izen eman ziona. 804'ean ainzuzen. Eta eman zion izena, PONTACAR izan zan, goraxeago ikusi dugunez.

POTAÑCAR: Or bai, or argia dugula dirudi itzaren etimologia. Itxurazkoa dan bezala, itzaren asierako "potan" ori "ponta"ren aldakuntza ba'litz, argibide au itengo bait litzauguke:

"Pont" + "a" goxagarria + "zar"? Ta, ebakuntza orren ondorioz, ezpairik gabe, ZUBIZAR datorkigu.

Eskerrak eman bearrean aurkitzen gera beraz Muña Andre Asturietako erri-gin euskaldunaren seme errege erdi-euskotar, eta seguruaski, osoki euskaldun zanari.

Baiñan ia ziurki, Zubiuri edo Zubizar ori eta gure larrukiko Pontecerzi ez dira erri bat bera, bi erri ezberdin baizik, Cantera Burgos'ek erakutsi digunez. Era berri utzi digu bein betirako argiturik, Zubiuri edo Zubizar ura Oron ibaiaren ertzean zegoala, Bujedo ta Miranda'ren arteko ibar pollitean.

Orain guri dagokigun lana, Pontecerzi'ri-buruz argitasun zerbait egiten saiatzea da.

\*\*\*

PORTECERZI.— "...in territorio Castellanense, in loco qui dizitur Pontecerci"; "Gaztelarra dan lurraldean, Pontecezi esan oi zaion tokian".

Dagerkigun eran, erdi-laterazko eta erdi-euskerazkoa dugu izen ori: "ponte"- "zerzi". Ta, "ponte" zubi dala edonork badakian ezkerro, "ZERTZI" zer izan daitekean igarri bearko dugu guk. Euskaldun-usai aundia dakarren itza dala ukatzerik ez dugu beintzat...

"ZER" erro duten toki-izenak eta giza-izenak baditugu gure euskeran ugari: Zerrate, Gipuzkoa'n, adibidez. Edo, Zerain, (Gip); Zerna, (Araba'n); Zerranoa, (Gip); Zerín (Gip); Zertutxa, (Bizkai'n); Zerborain (Ñaparroa'n); Zerío, (Bizkai'n)..., eta larruki ontako ZERTZIZUBI'ren itxurarik aundienekoa, gure artean ZERZIATE ("zertzi-ate") izango litzakean ZERZIAT laburditarra.

Ez naiz "zerzi"ren esanaiarik usmatzeko gauza. Lopez Mendizabal'dar Ixaka'k, "zer" ortan "ira" dakus. Ñik ordeá, ez dut Ixaka adiskide maitea zanak aiñako begi zorrotzik, eta ezin ikusi dezaket nola atera daitekean "zer"tik "ira".

Badugu ZERKALDE abizen bat ere, Mitxelena'tar Koldo'ren ustez 'JUÑTO A LA CERCA' omen dana. Orrela bai, orrela erreaz eratuko nituzke nik ere eus-

kal-jzen guztien etimologiak, eta ez nuke alperrik orrenbeste denbora galduko. Beude lasai abizen ori duten guztiak, "zerka" orrek gaztelerazko "cerca"rekin zer-ikusirik ez du-ta.

A! Ezin izan dut nik Pontecerzi ura non zegoan jldoro. Ubieto'k, bere aurkezpen baldar aren bidez, —"la iglesia de San Martín de Pontacre y Herran"—, Pontacre ta Herran erri bat dirala edieraztera emanez, Tobalina aranean ipintzen digu gure erri ura, naiz bi izenen artean sartzen duan "y" orren erruz, bi erri izan zitezkeala sinustu aal izateko ere bide bat iriki.

Egiten du beste oker bat ere Ubieto'k aurkezpen ortan: Pontacre ta Pontecerzi erri bat zirala uste izatea.

Tobalina, Ibero ibaiaren ego-ibarrean, Burgos'ena da gaur. An dago Garoña' ko nuklear-indar-ola ongi ezagutua.

Pontecerzi ere, an, inguru artan zegoala esango nuke nik, larrukiak Puron ibaia aipatzen duan ezkerre, naz Puron, Ibero'ri egoaldetik ez baiña iparretik dijoakion ibaitxo bat izan.

LABIETAS.— "... usque ad illo molino de Labietas"; "Labieta'ko igara artaraino". Larrukiak ezpairik gabe adierazten digunez, Puron ibaiean zegoan errota ori. Errez oartu zera nosti errota aren izena dan Labietas orren azkenean argi nabari dala "ETA" atzizk; euskalduna.

Larruki ortan eskua sartu zuan azkeneko lumalariak, izen ori, —Labietas—, zergaitik ugari-era edo "pluralean" ematen digun? Agian "eta" atzizkiaren aurretik zekusan "BI" ori, norbaitek esanda-edo, laterazko "duo" zala uste izan zualako: "Duo"; "Dos", geroagoko gazteleraz.

"Labi" zer dan igarri bear dugu beraz. Danadala, "LAB" aurrizkia deramaten izenak ugari ditugu Euskalerrri guztian: Labiz, Labiagirre, Labiago, Labiako, Labiano...

LABIAGA izena iru tokitan beintzat agertzen zaigu Euskalerrrian, nik dakidanez: Legazpi'ko larre baten izena da. Bidasoa'ko Bera'n, alor batena; eta Ñaparroa'ko Larraona'n, iturri batena. Esan bearrik ez da, LABIAGA ori eta gure larrukiko LABIETA, zentzuz, izen bat bera dirala. Ñaiz itxuraz ezberdiñak izan, zentzuz berdiñak bait dira daramazkiten atzizki ugaritasun adierazleak ere: "AGA", batek; "ETA", besteak.

"Labi" ortan berriz, Lopez Mendizabal'ek, "L" edergaillua eta "abi" bat ikusten ditu. Eta, "abi", —ez dakit nondik aterata—, gazteleraz "gamon" esaten zaion ezpata-itxurako belar luze lodia ornen da. Ortaz "Labieta" eta "Labiaga", "Gamonal" izango lirake.

Ñere ustez ordea, bada;tekean guza da, Labieta'ren aurrean "O" "elidida" edo "O" "galdu" bat egon izatea, eta orrela ba'litz, Labieta ura OLABIETA izango litzaiguke: "ola-ibi-eta": Gazteleraz, "lugar donde está el vado de la ferre-ría". An ordea sekulan olarik izan zanik ez dakigu, eta etimologi orrek ez du balio aipatutako ditugun beste iru Labiaga aientzat. Ez beintzat danentzat. Askotan etimologi batek ez bait du bi izen berdiñentzat balio izaten. Ar dezagun, adibidez, OLA izena bera. Ola orrek, ibai-ertzetan, "burni-ola" esan nai du. Mendi-tontorretan, "ardi-etxola".

Orregaitik, egin dezakedan gauzarik zintzoena, "labi" ori zer izan daitekean ez dakidala aitortzea dudala iduritzen zait. Ez dut beintzat uste, "labe"ren alda-

kuntza izan daitekeanik. Badakit antziña artan, maiz, "E" idatzia "I" agoskatzen zala. Baiñan badakit baitare, lumalari aiek "I" maiz aski "E" idazten ba'zuten ere, "E" ez zutela baiñere "I" idatziko.

\*\*\*

CAÑALEGGA.— "... et de Fonte Canalegga": "Kanalega iturritik". "Canalagga" oni, Miranda'ko foruak, "Canalellas" izen-ematen dio, "Patanpuri"ren alboan dagoala esanez.

Kerexeta'k, dionez, Kanales, Erronkari'ko dugu abizena dugu, andik Aragoi'ra zabaldua. Baiñan bai ornen da Leon'en ere abizen ori, an, izen bereko erritik sortua. Izango dira Españi-zear beste toki askotan ere, "canal" gaztele-razko itza bait da.

Gaztelarazko izena ote zuan bá IX mendean gure "Calegga" ark?

Ondo begien aurrera dagerkigu beintzat bere atzizki euskalduna: "EGA"; "aga" atzizkiaren aldakuntza. Ñere ustez, "Kanalaga", erdian "L" "eufonikoia" edo "doiñu-gozagaille" bat duala, onela ebaki bearco litzake: KAÑA-L-AGA. (Ori guztia, jakiña, itz ori euskal izen baten laterazko itzulpena ez ba'da).

"KAÑA"z asten diran euskal-izenak ezagutuko dituzu eskierki bat baiño geiago: Kanaga, Kanandi, eta "A" atzizkirik gabe, Kan-daratz, Laburdin, Kan-o, Araba'ko Urizarra edo Peñacerrada'n; Kanbo, Laburdi'n eta Kanboa Araba'n, eta abar. KAÑALA, ondartza ezagun baten izena da Bizkai'n, izen aski zarra gaiñera, 1.523'an ere agertzen bait da.

Kerexeta'k ontzat ematen du, "AÑA" "Iarre" dala dion Lopez Mendizabal'en iritzia. Ortaz, "Kanalega", "Pastizal" genduke.

\*\*\*

CAMPIELLO.— "... et illo molino de Campiello ad integritate"; "eta osoki, Campiello'ko errota ura".

Seguruaski, izen ori, lumalariak euskeratik leterara egindako itzulpena da. Ala ere, gure toki-izenetaz beti bezala, arreta aundiz ibilli berrak gera, "KAÑP" aurrizki duten izenak asko bait dira Euskalerrri guztian: Kanpanaga, Kanpistegi, Kanpion, Kanpizelai, Kanpoi; eta Kanpos bera.

"Anbo", "gamon" ornen da. Ñik ez dut gure iztegietan "anbo"rik billatu, baiñan askotan esan dudan bezala, gure iztegiak, fitologi edo berlarritiz zeero txiroak dira.

Asieran gaurko larruki au arin aztertuko dudala esan badut ere, luzatu egin naiz oartzeke. Emen bertan moztu bearco dugu beraz gure gaurko ariketa, peitzen zaiguna EUSKERAZAIÑTZAREN urrengo zenbakirako utziz.

LATIEGI'TAR BIXEÑTE



# EUZKERAREN ARERIOAK

Ez dira gutzi, alajaña!, bizi ta edestian barna gure jzkuntza onek izan dituen arerioak, m beraren aurka, zer zegiten jakin ala jakin gabe, gogor eta isituki ari izan diranak. Eta arerio guzti oiek zeintzuk izan diran ezagutzea egokia izango zaigulakoan nago, ain zuzen, oyen aurka jokatzeko bideak, bide egokienak, zelangoak izan ditezken begiratzeko ta oyetan barna bipilki joateko.

Lenengoa etxean bertan sortua dugu, etxekoa zearo, zoritza ez, betidanik eta barnetik bere lan zitala burutzen ari-izan dana, ta oindiño ere orela ja aitzen zaiguna: euzkaldunen artean ain berezia dan zabarkeriz du bere izena arerio orek, auzkerari buruz oso nabariturik ain zuzen agertzen dan zabarkeria, benetan guztiz ulerkaitza dan jokera deitoraga ia. Bai, euzkera barnetik maite dugu nontzat uler-eziña izan bear euzkerarekiko gure E i'an egiazko ajola ez ikustea. Zergatik, baña, ez izan gure e ita en artean E i'aren bizia dan beren izkuntzari buruz zaletasun geyago? berez eta ororengan sortu ta bizi bear-izango litzaken maitasun aundi ta bizi-bizia? Ez da eraz, geron ustez, erantzun egokia aurkitzea ta, apika, azpegi batzuetan ikusi bear-izango litzake ori.

Ba-dirudi, gurean, beti, lekorekoa etxekoa baño obetzat artzeko oso emanak izan gerala euzkaldunok, lekorekoa izateagatik bakañik, eta gaur bertan jokera ori edozertarako zabaldurik ikus diteke. Ondorioz etxekoa ezeztuta geratu bear, eta o engatik edo euzkaldunak sari lotsatuta agertzen dira euzkeraz egitean, bai ta erderaren au ean etxeko izkuntza uzteko ta bere orde z erderaz ari-izateko yoranez beteta azaltzean.

Euzkera ez jakiñen izkeratzat artzeko edo izan da; aitzitik, erdera jakitunen izkuntza bezela, ta nai ez, noski, ez jakiña bezela agertzea. Orixe dala-ta, onela adierazi dute beren iritzi oke a, nunbait esaten: "Dakienak daki, eztakienak eztaki, Malko e'ko zuku ak erderaz ez daki"; oía nor izateko izan bear dana, erdalduna, ta euzkalduna baserako bakarrik edo; erdalduna gizonen artean ari-izateko, euzkalduna abereen artean bakarrik, lotsaga ia lez bere burua ikusteko.

Gero ikusiko dugunez, uste ori izateko, lekoretik eldu zaizkio orela oldozteko kari batzuk, izpide aundiak bezela; ta noraño sartu zaigun gure artean iritzi ori! Alegin aundietan barna agertzen dira guraso euzkaldunak beren semeek erderaz jakin dezaten eta, guztiz itsuturik, etxean guziak euzkeraz mintzatua en, beren semeai euzkeraz egiteko debekatu diete, orela beren alde jokatzan zutelakoan. Deitoraga ia, egitan, jokera ori!

Etzuten ikusi gure au ekoak gaur ain garbi azaltzen zaiguna, ta ez jakite ortan aurki diteke, ausaz, beren egite aren azalpen bat. Ez, etzuten ikusi euzkera euzkal-gogoari eutsi al dizayoken bide baka a dala, ta gaur bertan ere amaikatxo ari dira ain argi dagoen ori ikusi barik. Etzuten ikusi euzkera uztean, iltzean, E ia ere, Eri bezela, iltzen zala, Ludiaren zear lege oroka a lez begira ditekenez; orela edozein E i'an berbera gerta ditekela oartzeko. E i guztietan eta bakoitzean beren izkuntza beren gogoari eutsi dizayokena bide baka a be

izanik. Len ez baña orain bai, orain argi-argi agertzen zaigu jokera ori, ta o engatik ezin uler dezakegu gure artean oren zabarkeri aundia.

Oso bearra izango zaigu, berez, egikera ori gogoratzea ta gogora-eragitea, bertan baitago, argi ta garbi, nolako bidea ja aitu bear dugun. Baña ori ikusi gabe ere naikoa izan bear-izango litzake euzkera euzkaldunen betiko izkuntza dala oartztea, besterik gabe, gure begi-niña bezela maitatzeko; ta ainbeste mendeetan barna gurean bizl-izan dala gogoratuz, berez sortu bear ere gure artean ilik ez geratzeko alegiñetan gogor ari-izateko gogo. Onela, bederen, geron etxean bertan sortutako arerio aundia menperatzeko.

Orixen da, alegia, gure euzkeraren etsai aundiena, enurarik gabe. Baña badagoz lekoretik eldu ta eltzen zaizkigun beste arerio batzuk, eta ez gutxi a anopola! Erdera diran alboko beste izkuntzak ditugu etsai aundienetakoak gure euzkerarentzat; asi lateraz eta onen semeak diran prantzera ta españeraz ja aitzen gure izkuntza zapaltzeko erabilak izan dira mendeetan barna ta eten gabe. Alboko late iek gure Eña menperatzen eta euzkaldunak alka en artetik bereiztean, bakoitzak bere aldetik beren izkuntzak inda ez erabiltzeko beartu gaituzte zin-zifnez, xede berezienaz ere. Ondo ikusi dute gu berenganatzeko bide egokiena izkuntza izan dala, ta gogor eta isituki orixen erabil dute buru-belai.

Orela iñoiz ez dute utzi euzkera ikastoletan erabiltzea, ta erdera jari digute ikasteko guziaren bide bezela, ondo ere baitakite guztia erderaz ikastean erdal-gogo ere sartzea egokienik lortzen dala. Orela jokatzean guztiok erderaz oldoztu dezagula iritxi dute, ta gaur, berez, orixen dagigu danok, erderaz oldoztu euzkera egin ordez. Ona emen guztiok ongi ikusi bear-izango genukena: erderaz oldozteko ain bearturik geron burua ikustea, gure jopu-egokera be oso agirian agertzen dala. Jopu izateko jayo ote gera euzkaldunok? Nola ori onartu?; baiña nola egokera ortatik gurean alegin aundienak egin gabe geratu?

Jakitun ala jakin gabe izan, lekoreko erdaldun guziek eldu zaizkigu beti irakasle, geuk zer egin bear dugun jakin-erazteko, ta guztiok berdin euzkerarekiko arbuoz beterik, gura izkuntza utzi bear dugula esaten eta ortarako egin al izan duten guzia betetzen. Gure biziaren alde jokatzeko beste biderik eztagoela esan digute bein eta beriz, egiazko beren xedea agertu gabe eiki, ots, gure Eña menperatzeko bide egokiena izatean, ortarako jokatu dute eten gabe ajola aundienaz. Eta oso ondo ikusi; ta begiratu bear dugu geron aldetik joko ori, guztiz atzipeturik ez geratzeko.

Gaur egun Late i'ak, itzez beñepein, erki-araudiak onarturik izan dirala-ta, ba-dirudi euzkera be onarturik dagoela, ozta-ozta ta azalean bakarrik bada ere. Itzak baño besterik ez, alegia, gurean irakasle erdaldun utsak diralako ta batez ere ikastoletan gai guziak erderaz ikasteko bearturik gagozelako. Era ortaz gura elburuetatik oso u un bizi bear dugu oraindik, gure bizi-bea ak eskatzen dutenez gai guztiak euzkeraz irakasi ta ikastea ezinbestekoa izanik; ora beste arerio aundia nun ikus dezakegun gure aurka jokatzean.

Eta ez ori bakarrik; gure udaletako landoletan langibak artzeko, toki batzuetan baitezpadakoa danez, euzkera jakitea baldintza bezela jari ezkerok, bereala Late i'aren agintariak oren aurka bipil agertzen dira, euzkera eztaquienak orela baztertzea dala salatuz. Berdin esan lezakete beste edozein gayari buruz, o ezaz ezer eztaquienak ere baztarturik geratzen dirala. Baña ori otu ere ez,

euzkerari buruz bakarrik ari dira orela, euzkeraren aurkako beren jokera nabari erakusten, eta bost ajola era ortaz ari diranai euzkera bera ta Euzkale i guzia, egitan, bazterturik geratzen dirala izanik, ta beren etxean bertan gañera. Ora gura arerioen beste jokera berezia.

Eta guzti ori naikoa izango ezpailjtzan, ata etxe barnean ere beste arerio bat sortu zaigula "euskara batua" jzena daramana. Jokabide oren esker, egun, amaika erderakada be iak onarturik agertzen dira gurean, onela beste ainbeste euzkal-itz jato ak lurperaturik uzteko. Jakiña, jokera ori ezin esan dezakegu gurean joko oso belia danik, eta zabarkeriaz ala beata zan lana ez egiteko alperkeriaz, len ere erab1a izan da. Oren aurka euzkaldun argi ta jakitun batzuk azaldu ziran, aipaga iak diran u engo bj iritziak erakusten dutenez. Ona emen zeintzuk diran eta nundik artu ditugun.

**Azkue'ren iztegia (50'gn at.): "Bestelango berba a otzak kendu bear dira, dagozanean izen euzkerazko garbi ta nekazarien artean artu ta aotuak" (Mogel, Per. Ab. 196-12).**

Ona emen beste bat: "Enparau guziok ark bildutako kopurua geitu bear degu, iñu iak bezela, gure kizkia nork daramayogula, orok batiz, erakusketan eta idazketan tairik gabe erabiltzeko, erdelkeri guziak e alotuta, autsa aizeak ba eyatu dezantzat". **OLABIDE.** "Giza-soña". (E etana iztegitik artuta, 1426'gn. o jaldean. **ERRALOTU** itza).

Ora or ospe aundiko bi euzkaldun jakjtunen iritziak, ja aitzeko ezin obeak bezela agertzen zaizkigunak. Ñola, baña, izan diteke bere burua euzkaltzale bezela eukitean eta erderarako oren jokera oke ean ari-izatea? Ben-benetan ulerkaitza guretzat. Ba-dakigu "euskara batua" oren atoan Arana Goiri'ren aurkako go otoa dala, "batua" onen alde ari dan batek esanda. (Ikus: "Euskara batua zertan den", 77'gn. o ialdean, Larresoro'k idatzita); eta ortxe ikusteko jokera ortan dagoen zio berezienetakoa.

Gure artean ari diran beste arerio batzuk aipa ta salatu genitzake, baña esandakoak naikotzat ar dizakegu geron aldetik nola jokatu bear dugun jakiteko. Ta barne-barnetik, emen edo an, gaur euzkerari buruz diarduten guzjai, be iro be, eskatu nai diegu euzkera gero ta geyako ikasteko, bere egitura sakon ezagutzeko ta ondorioaz euzkera bera dan bezela erabiltzeko.

**U estarazu'ta Andoni**



# PERIKO FORTUNA'REN ASTA-PENAK

-Astoa naiz. Astarra. Ogeita amar urte bete berriak. Asto zaarra.

-Aizu, Periko, ogeita amar urte ez dira aldi luze...

Zertarako dan. Astakeriak esan eta egiteko, naikoa. Zenbat astakeri esan eta egin ditezken aldi orretan, kontuan artzen al dezu. . ?

Bai, bai. Ori ere ala da.

Jaio ezkeroz, lñaki bat izan det nere jaun da jabe: kopeta aundi, euskaltzale purrukatua. Ez du erderarik erabilliko ezertarako ere, oso beartuta ez bada. Ikullua daukat kale-barrenean eta aldamenean nere nagusiaren sagardotegia upel eta guzti. Ogeita amar urte jaio nintzala, guda madarikatu bat amaitzean, eta orduko militar nagusiak dirau oraindik... Ñoiz arte? Galde egiten du lñaki kopeta-aundiak.

Orixe galdetzen degu guztiok, Periko.

Ba, oraindik, puska baterako zaudete. Orregaitik edo, alkartzen dira sagardotegian nere nagusia eta bere lagunek. Zeru eta lurra aztertzen dituzte eta arakatzen. Euskeraren egoera maiz aitatzen dute eta aren auzi-mauziak ondo ezagutzen ditut. Egoera larrian ornen dago... Esaten duten guztia entzuten det ikuillutik, tartean ol zaar batzuek besterik ez bait daude; zirrikituetatik ikusi ere ikusten ditut. Zenbat alkarrizketa berritsu, zenbat eztabaida gartsu, zenbat asarre eta trumoi...

Euskaltzaleek ez dute alkar artuko sekula sekulotan.

-Orrenbestez...!

-Bai, jauna, orresbestez. Bakoitzak bere astoari arre. Ori esan zuanak bazekien euskaldunen berri.

Gaitz ori ez da euskaldunena bakarrik izango.

Orixe bai nik ez dakidala. Emen agertzen diranak guztiak dira euskaldunak. Bestelako belarrimotxik ez da emendik sartzen. Danak dira ni bezelako belarri aundikoak. Ondotxo ezagutzen ditut. Goiak eta beiak jotzen dituzte; ezeri ez diote barkatzen. Ara esango dizut joan dan astelenean gertatutakoa. Pelis Txorta erjtegitik zetorren, Donostian gaixo egonda gero eta bertako lagun batek esana agertu zigun. Istorio latza.

## HOMO HOMINI LUPUS: GIZONA GIZONAREN ARERIO

Bi oge zuri burnizkoak. Leio zabal bat ezkerrean; bi gaueko-mai eta bi aulki. Ñere aldameneko ogea utsik dago. Bost egun daramazkit ospitalean. Seigarren gaua. Gau-erdian gelako argiak piztu dituzte. Lausoz eta lo-alez betetako begiak iriki ditut. Baiña, zer da au...!? Bi moja, bi sendagille eta languntzaille bat sartu dira barrura eta eurokin batera gizona zerraldo baten etzanda dakarte. Etxetik zuzenean ekarri ere, lotarako pijama kentzeko astirik gebe...



Eletrokardiograma aiñako guztiak egin dizkiote oge barruan. "Infarto de miocardio" aditu dut euren arteko mintzairan.

Eguna argitzearekin batera, sendagille gazte bat agertu zaigu aurrean:

Zure izena?

Juan Termosil.

-Ñungoa zera?

-Andaluziakoa..

-Ñun bizi zera?

Emen Donostian.

Zer lan egiten dezu?.

Ñere kontura nabil gauza-karriean.

Esan bear det aurretik, berarekin batera beste bi anai etorri zirala. Aundiak. Arpegi zabal eta bekoki illun. Golde-arrastoak aurpegian. Zimur gogorrek. Asko eramandako giza-semeak. Zamarra lodikote eta motzak. Lepo-ingurua larruzkoa. Oge-aurrean daude zutik. Medikiak:

Zenbat anai zerate?

Iru.

Aita bizirik al dezute?

Ez .

-Zerk eraman zuen beste mundura?

Galxoa gelditu da erantzunik gabe. Aurrez-aurre daukan anaiari begiratzen dio. Kiñu egiten dio buruakin, baietz:esateko, alegla, zerk eraman zuan:

-Goseak.

Oraingoan mutu gelditu dana sendagillea izan da. Geiago galdetzeko ausardirik ez

\*\*\*

Goizeko zazpiretarako ekartzen digute izparringia gelara; baiña nere aldameneko oneri ezer ez irakurtzeko agindu zion medikuak eta itzik ere ez aotik ateratzeko...Gerora, ordea, gauzak argitu dira: biotzekorik ez du ezer.

\*\*\*

Eritegietako ordu luzeak: danetarako dago asti eta denbora. Itz-jario asi ziztazidan: Andaluziako lurralde zabaletako bastartxo batean jaio zan, kortijo oietako batean.

-Bizia eta eriotza jauntxoen eskuetan genduzkan.

-Ainbeste!?

-Bai, ainbeste. Zerorrek ezagutuko dezu, nere etxearen berri emango dizudanean. Nere bi anaiak emen izan ziran.

-Gizon galantak.

-Ñj naiz zaarrena eta aita nola il zitzaigun entzuna daukazu.

-Gogorra benetan.

-Bai, oso gogorra; baiña egi utsa. Aita gaixorik gendukan eta ni nintzan etxera ogia ekartzen zuan gizaki bakarra. Beizaia nintzan. Lurrean billatzen nituen paperetatik jakasi nuan jakurtzen; ez bait zan gureztat eskolarik, Anajak gaztetxo eta aita gaixo. Emezortzi urte betetzean, pezeta bat geiago egunero irabazteko eskubidea ematen zidan legeak. Egun artan pozik zoratzen agertu

nintzan nagusiarengana: -Zer nai? -Ara, jauna, gaur bete ditut emezortzi urte eta gaurtik daukat eskubidea pezeta bat geiago irabazteko.,.

Bai, e..? Orregaitik ez kezkarik izan: zure lan ori zuk baiño pezeta bat merkeago zeñek egin, ez da emen faltako...

-Erantzun zitala.

-Egun artan galdu nuan gure etxeko ogibea. Egopetik estutzen dezun txo-  
ña bezela gebiltzan danok etxean, ito bearrean...Andik laister aita aldendu zi-  
tzaigun, goseak eraginda. Berrogei urte betetzeko bat falta.

Egoera larria...

Bitartean soldaduzka egiteko garaia eldu zitzaidan eta uraxe izan zan nere askatasunaren ordua. Ondo jantzi eta ondo jan. Gizendu nintzan eta gizondu. Baita begiak iriki ere: bazirala, alegia, gure kortijotik at makiña bat lurralde zabalik munduan.

Soldaduzka eginda, kortijora etxeratu al ziñan?

Zeroak emanda ere ez. Ez naiz ara geiago joan. Ñeure lurrak ogi eskasa eta mingotza eman dit jateko. Gizarteak oinpean eduki gaitu zapalduta. Ez diogu zorrik. Geran apurra geure indar utsez egin degu. Ezjakiñean eta nekepean erabilli gaitue...Zer zor diogu gorrotoa ez bada..?

Eta, nora abiatu ziñan?

-Iñora ere ez. Emen, gaur bizi naizen erri onetan egin nuan soldaduzka, asi nintzan lan billa eta ostatu batean eman zidaten nere lenengo ogibidea.

Zer lan?

Boteilla utzak ardoz bete. Sei urte amaigabeakoak pasa nitun bodega illun batetik iden gabe, kaleko argirik ikusi gabe. Astegunez eta jaiez.

Gero..?

Diru apurtxo bat egin nuanean, berriro lan-eske. Arakin batekin gelditu nintzan morroi. Andik errekarero batengana jo nuan eta ofizioa gustatu. Arekin gelditu nintzan eta gerora neure kontura asi.

-Ondo, beraz?

-Lan-bide onen zirrikitu guztiak ezagutzen ditut eta nere anaiak ekarri ditut sozio.

-Guztientzako lanjak, bai?

Ñai-aiña lan izanen degu. Aundikiro jokatu bear. Ezagutzen ditut Madrid eta Barzelonako merkatuak. Erroman eta Paris'en izana nauzu ango merkatu zentralen berri jakiten...

Etorkizuna zuekin dezute, noski...

-Zalantzarik gabe. Elburua badakigu eta bideak ezagutzen ditugu. Gogoia eta indarrik ez zaigu falta.

Garraioari merkataritza erantsi zioten. Termosil Anaiak eta konsumo-elkar-  
tearentzat ekin zioten lanean. Burruka borriro. Latza eta kupirigabea:

Ara, egun batez nere furgonetarekin nengoan kale-ertzean eta "kanpora emendik" esan zidan gure etsai baten langilleak. "Berebil au nerea da eta badet emen egoteko ekubidea ere" erantzun nion. "Begira izenari"... Baiña, aren erantzuna zer izan zan badakizu...?

Zer?

Kamio zaar aundi batekin nere furgoneta itzuli barruko langostino guztiak lur-gaiñera boteaz. Guztiak alperrik galdu ziran. Aste osoan irabazitakoak, une artan galdu...

Erreklamazioa egiterik izan zendun?

Lagun ezagunen gana jo genduan justiziaren eske; baiña, jauntxoa nor zan jakitearekin batera, alde egin ziguten. Bildurra zioten; baiña gu bildurtuko gaituen kristaurik ez da ja; o oraindik.

Zer egin zenduten?

Gau artan jauntxoak zitun kamioi guztien kurpillak ondatu. Lana eragotzi eta bien bitartean errespeta sartu.

Ekintzak ugaritu ala, lan aberatsen billa saiatu dira. Sare osoa zabaldu dute bere inguruan: akarioetatik bankuetara, merkatzaritatik "club"etara, alkoetik marijuanara, morfinaetik emagalduetara... Olkiak ordaiñetan: eurari gizarateak egindakoa gizarateari-itzuliko die...

Beuren jabetasuna geroz eta aundiago. Iru Anaiak piñu-azieran antzera zeuden elkartuta. Irurak bat. Gogorrean aziak, gogor artzen zituzten mende-koak.

Pozoia zeukaten gorrotoarekin naastuta eta pozoia gaztediari sartzen saiatu ziran eta gaztedia, artalde baten antzera, arakiñen eskuetan erori arazi arte.

.....

Eritegiko egunak aaztuta zeuden. Gaztedia menpean, lur eta mendiak menperatzeko oraindik. Elikoteroz ekin zioten lurraldeari begira bat ematen. Zoragarriak zeuden mendiak eta ibarrak: gaillurreetan aitzak gorri, nabar-kolore; beerago baso oparoak orlegi-illun; azpian larraiñak orlegi-bizi. Errekak marmarean garbi eta aize meea biriken pozgarri...

Madarikatua! Or pozik bizi dituk...! Goazen ara:mendiak ordekatu, ordekatu bete aizea kireztu, ura z; kindu, bizitza gogortu; bitartean urre guztien jabe geu eginen gaituk.

Gauza bakar bat falta zitzaien: politika-agintaritza. Aalmen lillugarri orren ondoren asi ziran. Demokrazia etorria zan ordurako eta agintaritza erriaren eskuetara etorria. Auteskundeak egin ziranean euren mende zegoen zabal-kunde osoa, bai radioz eta bai telebistaz. Aldezkarietatik, zer esanik ez.

Indarrez lortu edo diruz erosi botoak...Azkenik:

Lortu diagu nai genduen. Orain erria ordenan jarri. Ez iñork ankarik mogituko gure baimenik gabe.

Lagunek ugari sortu zitzaizkien gorroto eta gogortasunerako prest. Illerriko arri zabalak garbi oso, Termosil Anaïen erria iduri: oso txukun, oso apal, oso menpeko. Biotzak eta buruak koipearen neurrira bigunduta, idien antzera mantso-mantso, gizatasunik gabe.

-Gizatasuna geuk daukagu eta ori naikoa. Pailasoak eta ogia, orra auek bear duten gauza bakarra. Ez dute besterik bear.

\*\*\*

Taldea pake santuan eta ordena bereizian. Zoragarri. Illerri baten pakea. Arrak, atsa eta ustelkeria azpitik zebiltzen.

Zimaurtegiarik aundienean ere loreak sortu oi dira noiz-beinka. Egoera orren aurrean, "Danen Aurka" gizasemea jeiki da:

-Ardiak arategira bezela zoazte: illea mozten dizute, esnea jeisten, lukaikatarako aragia ebagitzen... Jeiki zaitezte! Ez al dezute zuen zoritxarrik ikusten? Konortea galdu al dezute?

Ardiek begiratu apala egin diote. Alperrik da. Entzungogor daude, ez aalmen eta ez gogo. Ez dute ezer. Drogari emanak daude. Menpean bearuko. Gizartetik artutako iraiña gizarteari biurtu diote Termosil Anaiak. Eta, gañezka.

.....

Pelis Txorta ixildu zanean, maikide guztiak asi ziran batera:

-Baiña, ori zer da, gertakizuna ala asmakizuna?

-Ñik ondo ez dakit zer dan. Ñik ez nituen Termosil Anaiak ezagutu;baiña, eritegian entzun nuen istori ori. Erdizka beintzat egia dala badakit; asmakizuna noraiñokoa dan, orixe ez dakit... Bear bada, profetaren bat ere bada tartean.

\*\*\*

Ekin zioten oraindik ere eztabaidan gaztain erreka amaitu arte. Berba-jardun aretan eutanasia atera zuen batek platerera. Eutanasiarik egiten ote zan eritegietan, alegia. Berandu zan artan asteko eta Anton Kaleri eskatu zioten gaia urrengo baterako prestatzeko. Bait ba, Anton Kale Arantzazun praille egona degu eta teologia ere ikasi zuan. Zeiñek obeto? Sagardo-baso bana eran zuten eta alde egin, ni nere ikuilluko pakean utzirik. Bazan ordua. Ez didate nai aiña lorik egiten uzten eta biar nere jaun kopeta-aundi orrek naiko du ni lanean eduki errementa arte. Egunen batean nik emandako ostikara pareakin illargiraiño b;alduko det. Gabon.

## EUTANASIA ETA ERITEGIAK

Gaur larunbata. Taloak eta gaztaiñak erretzen ari dira sagardotegian. Biar lan gutxi: nere ondoko bei onentzako belar apur bat ekartzea. Ori gauza erreza da nere jaun lñaki ospinduta ez badator beintzat. Arrazoirik gabe makilka asiko balitz, lepezamarretik ainka egingo diot, ortzaka...

Anton Kale betaurreko eta guzti etorri zaigu. Gaztaiñak erretzen ari diran artean, paper zuri batetik asi da irakurtzen. Besteak ao zabalik daude bere inguruan. Onela asi da Anton Kale.

\*\*\*

**Eutanasia** itzak zera esan nai du: nekeetan dagoen gaixoa iltzea, eriotza zuzenean dakarren zer-edo-zer egiñez. Orrelako eutanasiarik, zuzenen gaixoa erailtzen duena, ezin liteke iñolaz ere onartu. Orrelakorik onartzen bada, orduan gaixoak ez du uste onik izango bere sendagillenganako; ez bait du jakingo zertarako diran botika, arek emandakoak, sendatzeko ala iltzeko.

-Bai, bai, ala izango dek-zion Praiskuk.

Eutanasia ori gaixoak berak eskatuko balu ere, gogo orreri amor ematea, gaixoarj bere burua iltzen laguntzea litzake. Ezin liteke orrelakorik onartu. Eutanasia (eriotz-ona)erailketa onean biurtzen degu, orrela jokatu ezkeroz.

Eutanasia beste era batera ere artu genezake; baiña, orduan ez da benetako eutanasia. Ortik sortzen dira naiko naaste. Esate baterako, gaixoari senda-bide oso gaitzak eta kostosoak ukatzea; edo-ta miñak kentzeko lo-belarrak ematea naiz-eta bide orretatik gaixoari bizia murriztu...Bide oiek erabiltzea ez da benetako eutanasia. Garbi erabilli leizke barruko kezkarik gabe.

Ori ere bizia kentzea da. Ez al dira bi eutanasiak berdiñak?(Anton Kalek).

Ez dira berdiñak: lenengoan gauza bat ematen diogu zuzenean ilko duena; bigarreanean, berriz, osasun-biderik ez duen biziari alperrik luzatzen ez diogu uzten; bide kostosoak alperrikakoak diralako gaixo orrentzat eta familiarako ondamentia; ori alde batetik eta bestetik, berriz, lo-belarra emanda miñari aurpegi ematen laguntzen diogulako eriotza xamurragoa izan dezan. Irten-biderik ez duten gaixoeri buruz ari gera.

- "Dakixenak bakixela" esaten ditek Lekeition eta ala izango dek.

## **ERIO TZ ONA**

Iltzeko era eta modu on baten eskubidea badu gizakiak, iltzeko era onik arkitu baliteke, beintzat. Gizon-emakumeen eriotza gizaki-maillakoa bear du izan eta eriotz-mota orreri esaten diogu Eriotz Ona. Erderaz Muerte Digna esan oi dana.

Orain urte gutxi dirala, jenderik geien-zion Pelix Txortak-etxean iltzen zan; orain, berriz, iñor ez da etxea iltzen. Geienak ospitaletan.

Aurrera doa Anton Kale:

Egoera zeero aldatu da gaixoeri buruz: gaurko eritegieta n Jende-multsoa biltzen da artaldean antzera. Berdin sendagille eta beste laguntzaille guztiak. Danak talde aundia osatzen dute eritegi bakoitzean. Eta gaixo bakoitza egunero askoren eskuetatik pasako da; baiña iñortxok ez du izango gaixo orren norkiaren ajolik. Zaintza jilleen erantzunkizuna taldean urtutzen da eta gaixoa gelditzen zenbaki edo numero bat besterik ez dala, nortasuna galduta eta zerki bat bezela. Zerki interesgarria ala arrunta; baiña, zerki uts bat bezela (caso clínico). Eritegi batean gaixoa ez da norki bat izango, persona bat izango, bere senide eta lagunentzako ez bada.

Eritegiak, osategiak, hospitalak teknika-bidea dute begien aurrean eta ikuspegi orretatik datorkie aurrerapena; goxotasunik, maitasunik eta gizakitasunik gabe, ordea. Gai onetan ez du iñork an ez erantzunkizunik, ez ardurarik ere.

Millaka gaixo ditun eritegiak fabrika baten antza du: teknika onarekin lana saillean eta erre z egiten da; baiña, sendagille bakoitzat gaixo geiegi ikusiko ditu egunero eta gaixo bakoitzak sendagille eta erizai geiegi...Danen artean gaixoa utziko dute bere bakardadean bakarrik. Bere bildur, bere pena, bere buru-auste, bere larri-aldiekin...bakardadean bakarrik. Eta jendez inguratuturik egon arren, eriotza etorriko zaio ixilka bere bakardade artan.

Hospital aundi batean azterketa bat egin zuten erizaiñen artean. Galdera auxe zan: -Ñun nai zenduke il? Eta geienen erantzuna: -Ñeure etxean, neure senitartean, lagunez inguraturik; ez beintzat onelako eritegi batean.

**Elkarteak du errua, beste bideak baztertuz, teknika-bideetan bakarrik dabil-lako. Sendagilleak, eurak ere, ez dakite zer egin il-zorian dagoenarekin lo-belarra ematea ez bada:konortea kendu eta burua galdu-erazi... Beste erre-mediatorik ez dakite ez medikuek, ez beste erizaiñek ere.**

Soka orretan sartzen dira, bear bada, ara joaten diran senitarteko eta lagun-ek, kapellauak berberak ere tarteko direla. Hospitalako giroak, moltsoka gai-xoak egoteak edo, ez du, nunbajit, lan orretan asko laguntzen.

Pelikula italiar batean Sofia Loren agertzen da hospital aundi bateko moja eta berarekin batera erizañn komunista bat. Burruka sortzen da bjen artean, zeñnek il-zorian gaixoari obeto lagundu: mojatxoak bere otoitzeekin eta otoitza eragi-ñez; komunistak, berriz, eskutik elduz eta ondoan egonez bere kidekoekin . Bien bitartean aukera kentzen zion mojatxoari, komunisteiri laguntzen etortzeko.

\*\*\*

Gaur egun sekula baiño bakarrago iltzen zaizkigu gure gaixoak. Larritu orduko eritegira eramaten dizkitugu eta iñor etxean gelditzen bada, ez dakigu ordu larri oietan laguntzeko zer egin ere, lo-belarra ematea ez bada. Ez dakigu nola lagundu eta zer jokabide erabilli.

Illetak ondu dira eta edertu; baiña, il-zorian daudenen laguntza murriztu egin-da. Lanik izaten zuten orain urte batzuek parroketako apaizek larri-aldian zeu-den gaixoeri laguntzen; orain, berriz, gaixoak hospitalera eta bertan iltzen dira geienak bere etxetik eta bere girotik aparte, orixe geienen bear zuten orduan.

Baziran gure erri txikietan zerora antzeko emakumetxoak ere laguntzen doai berezia zutenak, aldi orretan berejziki. Aiek ere galdu ziran... Bearrik ere ez, ez bait da iñor errian geldjzten iltzeko...

\*\*\*

Gure gizarteak ez dio; iñundik ere, eriotzari aurrez-aurre begiratu nai. Alegi-ñak egiten ditu eriotza etxean gertatu ez dedin eta, al bada, gorpua hospitale-an eduki illeta-ordurarte. Orrela, "gau-illa" egin bearrik ez. Garai batean eliza barruan edo elizondoan zeuden illerriak, urrutira eraman ditugu eta gorpua ixj-llean eraman gizartea konturatu ez dedin. Ez dezala eriotzaren arrastorik begien aurrean ikusi ere.

Gizakia onurak ematako dago munduan jarria eta goi-maillako produktibita-teari euzteko. Orretarako gauza ez dana, erditik kendu, ez bait du ezertarako balio... Traste zaarrak ganbarara eramaten dira eta ganbararik ezean, zaborre-tara bota eta erre.

Eutanasia (eriotz-ona, eriotz-egokia) asmo oietatik sortua dirudi. Baiña, orrela Jokatzuz "eriotz egokia"ren ordez "ilketa egokia" gerta litzake: esku gar-biekjñ gizakja erail eta geu lasai geldjtu... Tranpa-kale. Hospitalak sendategj izan bearrean, erioztegi gertatzen dira: matadero egokiak eta sendagillea, berriz, korridetako puntilleroa.

\*\*\*

Gizon-emakumeek gizaki-erara iltzeko eskubidea eskatzen dute eta esku-bide orrek eskatzen du, gaixoak bere egoeraren berri jakitea; naiz-eta egoera ori larria izan. Ezin lezaioke egi ori gaixoari ukatu. Eskubide ori berea du eta bere izateari dagokiona. Ezjakiñean gizakia iltzen uztea ez da jokabide zuzena.

Ñork, noiz eta nola berri eman, ori beste arazo bat da. Ñeurriak artu bear gaixoaren gizatasunaren erara, apurka ala bete-betean esateko; baiña, dana dala, egia esan. Ez dezagula beste aldera bialdu ezeren berri jakin gabe.

Maitasunez eta kristau-fedez jokatu bear da.

Maitasunez eta otoitzez.

Otoitz egiten lagundu. Aldamenean egon, eskutik eldu eta laztandu, berarekin, berak alduen eran, otoitz egiñez... Ori bai dala ondo iltzen laguntzea. Kristauek, ordea, orrelako oiturak aztuta gablltza. Gaixoaren aurrean zutik, ezer egin gabe, larri dagoanetri begira... Laguntza eskasa da ori. Orretarako sukaldean egotea ohea litzake. Aldiko bat naikoa da, gaixoak besterik eskatzen ez badu.

Eriotz Ona bide orretatik etorri lezake. Eustanasia, berriz, Erailtza Ona gertatuko da.

.....  
Oiek danak entzunda kezkatu gelditu ziran; urteetan aurrera asita bait zeuden.

Ñere nagusiak ni, Periko Fortuna naizen au, txorjotako salduko nau egunen batean; baiña, bera ere, eta bere lagunak, egondezakete kontuz: euren seme-alabak izango dira saltzailleak. Zejñek erosiko ditu? Giza-aragia lukaike-tarako, miñegia. Ez du ezertarako balio. Lurpean usteltzeko.

Zarren eriotzatik berrien eriotzara pasa ziran etenik gabe.

-Bai-zion lñaki nere jebeak-gure auzoko Jospinñisiren alaba gazteena Ingalaterrara joana degu

-Igelesez ikastera?

-Ñungo munduan bizi aiz i, Anton Baxarri? Orretara ez, beintzat.

-Zertara, ba?

Aurgaltzera.

Orretarako araiño joan bear da? Edozein atsoak-dio Pelis Txortak-, sorgin oietako batek, egin lezaken lana dezu....

-Ixilpean egiteko bai eta orrek arrisku asko ditu; Ingalaterran, ordea, aurgaltzea legez onartuta dago.

-Ñola onartu lezateke ori? Lege ori onartu ezkeru, eutanasia ondoren dator eta orduan, errukarriak gu...

Peru Kirten sartu da sagardotegian eta entzun ditu alkarjketak:

-Zergatik onartu ez? Erri aurreratuenak onartzen dik orrelako lege bat; gainñera, olatuaren aurre-puntan diranak, oiek, Erriaren diruetatik ordaintzen ditek lan ori...

-Eta, erriaren dirutik, geure dirutik, ordaindu bear ditugu besteen okerrak...?

Zergaitik ez? Orj emakumearen askatasunerako da.

Bere askatasuna iñoren kaltetik, bere seme-alabeen eriotzetik... Aitzaki orrekin gizona gertatzen da benetako aske...

lñakik, berea da sagardotegia, auzia erabaki du eta eztabaida ebaki:

-Emen daukat nik euskal aldizkari batean gai oneri buruz idatzi dutena.  
Arretaz entzun.

## **AURGALTZEA, AMNISTIA ETA ASKATASUNA**

Kirofanoa

||| unabarra aurrera doa Eguzkiak bere urregorritzko printzak galtzen ari dan neurrian, gauak bere estalki beltza kokatzen du izaki osoaren gainean... Goizeko izarra agertu da ortzian, zearo gau illundu baiño lenago: "Ez negarrik egin eguzkiak alde egin duelako, malkoak ez dizute izarrik ikusten utziko-ta. "

Sendagillearen egon-gelan zai dauden iru neskato auk ez dute izarrerri begiratzeko astir;k; gau beltzak artu bait die biotza. .. Sabelean daramaten aurra. galdu nai dute bera ezagutu aurretik, ezagututa gero damutu ez ditezen.

Arratsalde osoa daramate zai. Eurak etorri diranean, gela nezkatoz gainezka zegoen. "Cien mil mujeres siguen abortando en el extranjero" zion 1986garrengo abustuaren ilan Donostiako egunkari batek.

\*\*\*

Kirofanoan sendagillea eta bere lagunak izarditan daude eta ez bero dagoelako, lanaren poderioz baizik:

-Orratzak! Dio sendagilleak.

Eta orratza eskeintzen diote aurra zirikatzeke. Buruan barrena sartu dio, amaren sabelean gordeta dagoen aurrari, burnizko jostorratza. Aúrra protesta bizian diardu. Ez alperrik. Preso daukate, loturik, amaren sabel biguñean, ain eskutuki goixo eta segurua zan sabel orretan. Lotuta daukate; eskapatu ezin eta jaio baiño lenago, amaren erabakiz, il egin bear...

Gizon prestua izateko sortutako aurrak, ez du argirik ikusiko. Bere amak eraman du eriotzara. Sendagillearen eskutik. Gizartea sendatzeko prestatu dan gizonak erail du. Zenbat diru txautu eta gastatu ditun gizarteak gizon ori sendagintzarako prestatzeke..! Orretzek erail ditu ameen seme-alabatxoak.

Aur-galdua eta bere aur lagunak, oraindik epel eta dar-dar, zikinpotora bota dituzte. Ogei aldiz egindako erailketa egun onetan:

-Gaurko naikoa degu. Aspertu naiz.

Emakume laguntzaillea gerturatu zaio belarrira:

-Beste iru daude zai.

-Gaurkoz ez besterik ekarri. Ñekez iguinduta gaude.

\*\*\*

Aur-galduak eta aur-lagunak kosmetika-gaiak ornen dira, emakumearen azala leguntzeko eta elikatzeko oso egokiak. Bear bada ama orrek kosmetikagantza erosten duanean, bere seme-alabarekin egindakoa gerta liteke: eurok lagunduko diote gorputz-azala lirain gordetzen... Zikin-pototik ontzi aundi bazueta irauli dituzte eta aur-lagunak eten diranean, naaste borrhaste artan aur-



galduak agertu dira eskutxuak gora dituztela, laguntza eske... Ez alperrik. Urreak arri biurtu dio gizakiari biotza. Askatasunaren izenean amak, irabazia -ren izenean sendagilleak.

Ogei intziri larrik irten dute gaur goruntz gela onetatik, odol errugabe auen alde justizia eskatzen..

## **Manifestapena**

Aurra galdu duten emakumeak kalera irtetea, manifestaldi batekin topo egin dute kalean: Amnistia orokorra, Presoak kalera, Eriotz-zorrik ez iñorentzat... Orra zenbat gauza eskatzen dituzten... Gizon- emakumeek, alkarri eskuak emanez, katea osatu dute. Preso guztiak kaleratu nai dituzte. Giltzapeturik ez. Askatasuna danentzat. Eriotza iñorentzat ere ez: eriotz-zorrik ez.

Bat-batean polizikoez agertu dira kale-ertze batetik. Ango ankaotsa. Manifestaldikoek kale-zarrera jo dute. Burruka sortu da. Arrika batzuek esku-utsik eta fusillekin besteak pelota eta ke-potoak botatzen... Une batean kale-zaarra guda-leku zirudien.

Presoak askatu ez eta libertatea kaleetan galdu. Askatasuna eskatzeko aña askatasunik ez da. Gizonak gizona menperatu. Aldunak alduan eran. Goi-koak bekoari. Estaduak erriari. Indartsuak ergelari. Ñorbera libre izateko besteak katepean ipiñi, besteak giltzapetu, besteak zanpatu...

Besteen askatasuna eskatzeko eskubidea badegu. Bai, orixe. Eraille kriminalari ere errespetoa bear zaiola uste degu. Bai, orixe. Eraille-kriminala ez dala iraildua izan bear uzten degu, eriotz-zigorren aurka gaudenok.

Bai, orixe

Baiña ama batek ere bere sabeleko aurrari indarkeria egiten dio aur-galtzean: eriotzaraiñoko indarkeria. Kriminal bateri eriotzarik eman bear ez bazaio, nola liteke aurrak beuren ameen sabeletan irailak izatea...! Eta, ama bateri eskubide ori ezagutzea...!? Eta ori gizarteak berak ordainduta...!?

## **Erailketa**

Manifestalditik etxera bildu geranean, orduantxe ari ziran irratia eta telebis-ta, biak batera, berri au ematen: atso xaarra erail zuen gaztea arrapatu dutela, alegia. Aitortu ere aitortu du, beste zazpi atso haar illak ditula aurretik.

Bere jokabidea: Pasealekuetan lkusten zitun andratxoengana urbiltzen zan, bakarrik zeudetenean, oso ezagunak balitu bezela, Aurtzarotik ezagutzen zitun. Bere bakardade artan, andratxoa poztu egiten zan orrelako ezaupide batekin eta ar-emanetan asi. Gazteak konfiantza osoa lortzen zunean, etxera joaten zitzaion laguntzera eta denbora pasa. Eraman aundiz jokatzen zuan eta apurka-apurka ikasten zuan nun zeuzkan andratxoak bere dirutxuak gordeta. Aurrezki-kutxak baiño bi aldiz geiago emango zion berak korritu bezela. Eman ere bai. Diruak eta beste gaiñontzeko aberastasanak bereganatzen zituanean, andratxoa baiñura joaten zan batean, sartu eta lepozamarretik elduz, ur-azpian itoten zuan.

Andratxoa etxetik irteten ez zuela auzokoez konturatzerako, pasa oi ziran iru edo lau egun. Bitarte orretan gure gaztea andik urrutian beste amonaxo baterekin artu-emanetan asita zegoen...

-Eriotza zor zaio. Dio Fiskalak.

Baiña, eriotzaren aurkako manifestaldia kalean dabillen artean, ez zaio erreza izango fiskalari, gaztea eriotzara eramatea... Eriotza batengatik beste eriotza bat eskatzea, alperrikako gauza bait da; bizitzarako eskubidea izanik giza-kiaeren eskubiderik oiñarrizkoena. Aurgalduari ukatzen zaiona.

\*\*\*

Egoi aizea, zoro-aizea, sorgin-aizea. Orra iru izen; kostaldean, berriz, erreka-aizea. Egoi-aizeak eta illargi beteak alkar jotzen dutenean, orduan izaten da gure buru-garunetan alako ari-eten eta lotura-askatze bereizia.... irudimenaren ganbara puztu, goiak arrotu eta zorabioa sortutzeko moduan.

Gaur il-bete eta agá-alza.

Eriotz-zorraren aurkako manifestaldiak, amnistiaren aldekoakin topo egin du Barrenkalean. Jende-moltsoak kaleak bete dabiltza, erlauntzaren zurrumuruua sortuz gorutz datorrena eta teillatutik teillatura zabaltzen dana laiño. baten itxuran... Bi manifestaldi naikoak ez dirala, Emakume Askatuek sortu dute irugerrena Goikokaletik Barrenkalera oiuka:

-Emakumea, kateak eten, Aur-galtzea libro, Aur-galtzearen eskubidea, askatasunaren gaillurra...

Kriminalari eriotzik ez... Amaren sabeleko aurrari eriotza bai... Preso dagoen gaizkille guztiei, askatasuna... Orra zer konpota eder... Orra zer saski-naski trakets... Zer naaste-borraste ikaragarri... Gaizkillearen bizia gorde artarako eskubidea ematen diogulako eta une berean, aur errugabearen eriotza eskatu, amaren askatasuna dala aitzeki...

Gure gizarte au erotasunari emana dirudi.

\*\*\*

Sortutako aurrak askoz geiago galtzen omen dira, jaió baiño. Aur-galdu auentzat betetzen da Joberen aieneka:

"Utikan nere sor-eguna  
eta `sein arra sortu da' ren gaua.  
Egun ura itzali bedi,  
goitik Jainkoak ez dezaiola begira  
ez eta argiak bere izpirik eman aren gaiñera...  
Gau artaz illunbea jabetu bedi...  
goi-izarrik ez bekio bere argirik aman.  
Zergaitik ez nintzan umontzitik arat il,  
amasabeletik sortzean bizia galdurik?  
Zergaitik, aitaren belaunak nere zai zeuden  
eta amaren ugatz biak ni azteko gerturik?  
Orain nare nintzake, lotan atsedeten,..."

Gentza eta pakea bere bizi osoan nabari izan zuenak esaten ditu itz negar-garri oiek kortako gorotzetan neke miñez etzanda dagoenean; lenago zorionez gaiñezka eta orain erio-samingarri baten zai... Bizitzan, ordea, argia berriro piztu zitzaion eta madarikapen oiek ukatu. Eguna berriz ere, gau beltzaren ondoren, piztu zitzaion. Jainkoari barkapen eskatzen dio eta eskerrak ematen kantari.

Madarikapenak bedekapen biurtzen aukerarik ez zaie, Job'eri bezela, ematen milloika eta milloika aurreri: bein betirako irailak, beste aukerarik gabe.

Bera mundure ekarri zuen emakumearen askatasunaren izenean..!  
Kateak autsi semeari buruan mazoekin emanaz.  
Libertada merkea!

\*\*\*

Arazo oneri buruz, ona ipui zaar bat:

Iñuxente egunean eun aurtxo gerturatzen ornen ziran Herodes'en illobira; Belen'en illerazi zitun umetxoan animak. Alkarri eskuak emanda Herodes'en illobiaren inguruan dantzan ete kantari iltzaillea madarikatzen... Herodes, izuak artuta, iges doa eta aurrek bere ondoren garraixika. Zorabio artan lapur-zulo batean sartzen da; baiña, lapurrek bere zulo artatik makilka ateratzen dute, ez bait dute euren artean orrelako gizon ankerrik eta zitalik nai. Lapurrak dira eta lapurretan egiten dute; tarteka, besterik izeñean, odola ere ixuritzen dute. Aurak erailtzea, ordea, beste arazo bat da eta eurok ez dute orrelako biotz beltzik... Andik iden eta eroturik korrika itsas-lapurren ontzira salto egiten du, aurak ondoren ditula. Kapitanak ezpata-muturra ipintzen dio Herodes'ri gerrian eta kanpora ateratzen du asarre bizi. Begi bakarra izan arren eta erre-na, oietxek izaki bere eginkizunaren senalerik onenak, aurak erailtzea ez da bere lana, naiz-eta tarteka barkuan ondoratu. Baiña, burruka leiak batean, begia eta anka galtzeko arriskuan... Aurak erailtzea, ordea, arrisku gabeko lan negargarri bat besterik ez da:

Kanpora nere barkutik biotz bageko gizakume ustel ori...!

Igeska doa berriro errian zear eta estutasun artan etxetxo baten atea iriki eta barrua sartu da babes billa. Une artan sorgin antzeko emakume zikin batek jostarratz luzea du bere eskuetan, ogean dagoen ama gazteak sabelean daraman aurtxoari, sartzeko. Ori ikustean Herodes'ek burua jasotzen du arto:

-Ñi ez nintzan zuen ama. Ama orrek berak galtzen du bere aurra! Umetxoek, burua makur eta malkoak begietan, bakoitza bere illobira. Arrezkero pakean ornen da Herodes.

Gogorak iruditu zitzairen Iñakiren itzak eta bereala ziran ez eta bai. Ñi bien bitartean lasai: guk ez ditugu geure aurak galtzen berezko okerkeriren bat ez bada. Astoak gerala eta astakeriak egiten ditugula... Eskerrak gizon sortu ez nindutela; bestela gizonkeriak egingo nituzke. Oiek bai dirala benetako okerkeriak. Ñagon asto.

Anton Baxarrik eman zion mintzairari asiera:

Esandako itz oiek gogorak dituk benetan. Oiek orrela al dira?

Zer iruditzen zaik? Dira ala ez dira? Iñakik erantzun.

Bai, ala ematen dik; baiña jendea ez zegok orrekin konforme...

-Konforme ez egon arren-zion Anton Kalek-izan ala dituk, naiz-eta askatasunaren ikurriñaren azpian zatorkeri asko gorde.. .

Zer zatorkeri...? Anton Baxarrik.

Ñorberekeria ugari: ni ondo izan ezkeru, besteak orkonpon. Anton Kalek.  
-Geure burua maite, beste guztien kaltean bada ere. Iñakik.  
-Jainko txiki orreri eskeintzen diogu baita geure semeen bizia ere... Ori bai dala benetako Molok.

Anton Kale, eta nor da Molok ori? Anton Baxarrrik.  
Israel inguruko errien jainko txiki bat.  
Eta, zer egiten zioten ba jainko orreri?  
Bere brontzeko irudia sutan goritu eta seme-alabatxoak berari bota bertan erre zitezen.  
Ori bai dala astakeria, ori!  
Eta, aurgaltzea astakeri txikigoa al da? Iñakik.

Ñik, nere jabearen aotik, oiek entzutean ekin nion arrantzaka ikuilluan, protesta bizian: guk ez degu orrelako gizonkeririk egiten...! Nere nagusi kopeta aundja kortan sartu eta makilka asi zitzaidan, ni ixil arazteko. Ñi, berriz, ari osti-koka. Artan amaitu zan bart arratseko billera. Asarre jeiki da nere aurka Iñaki, arazoa bukatzeke utzi zutelako. Gaur bilduko omen dita berriro.

Bildu dira gaur berriro nik esan bezala. Atzo erabillitako ariari eldu diote, baiña giroa ostuta zegoen. Gajari amaiera emateko onela zion Iñakik:  
-Dana dala eta dena den, ibilli oker aietatik etorri zitzaion pakea Herodes'eri.

Pelix Txortak erantzun:

-Pakean utziko zuten aurrek, baiña ez bere konzienziak...

Konzienzia-Anton Baxarrrik-berdea zan eta astoak jan omen zuan. Ori entzutean ekin diot arrantzaka: gizakumeak okerra egiten duen bakoitzean, zergaitik ateratzen gaitue platerera...?

Iñakik orru egin zidan sagardotegitik:

Ago ixillik, Periko, sekulako pasadea artu nai ez badek! Ixildu bearko eta ixildu naiz, makilka ilko nau beztela. Baiña Pelix Txorta ixilduko duenik ez dago, esatekorik duenean. Eta gaur esateko dago. Gerratean entzundako gertakizuna dakar maira.

## **KONZIENZI IL-EZIÑA**

Egun gorriak ziran egun aiek.

Erri osoak kamiñoetan zear, nora ez zekitela, euren aberastasun apurrak bizkarrean zituztela. Geienak andrazko, ume eta agureak ziran. Gaztedia eta gizaseme gordiñak mendietatik zebiltzen, armak eskuetan...

Anai-arteko burruka beltz iguingarria. Guda legorra. Odolez gorri, bekaitzez illun. Malko mingotzak begietan... Gose eta egarri. Bero eta otz. Aterperik eza. Kamiño bazterretan lo...

Mendietan arerio zital errukigabea, jaun eta jabe.

-Cien a ochenta!

-Zeñen alde..?

Gorrien alde.

-Bai.

Laterriaren kapitaleko Irratian Prieto jauna:

-Gu gera nagusi, gu garaille! Ona emen gure armak...

Ontzako-urreen tin-tina, irriaren bidez, erri guztietara, sukalde guztietara...

Urrea gorri bait zan... Urdiñek ez zuten deusik.

Zuek ez zerate ezer, urre-gorria gurea bait da...!

Urre-gorritik kanpo bada besterik, ordea.

\*\*\*

Egun artan urregorridunak aurretik igeska eta urdiñek ondoren aurrekoak arrapa naiean. "Ño pasarán" bide-ertzeetako ormeetan. Esan bearra dago, Espainiako urre-gorriak Madrid'en zeudela eta ez Euskadin. Emen ez diru, ez egazkin eta eskuetako armak ere oso urri.

"Detente bala, el Corazón de Jesús está conmigo" erasoka zetozenen kaki koloreko soñokoetan. Ñaparrak geienak. Oietako batek iru arrasto ori gerrera-  
ren esku-muturrean: brigada-maillako adierazgarria:

-Etorri zera berriro, Petrikorena?

Bai, gizona. Makiña bat egun larri pasa dugu.

Ñundik zatoz?

Bizkaitik, Lemonako aitzeetatik.

Ara año eldu zerazte?

Ñeke eta odol-ixurtze ugari bitartean...

Ainbeste..?

Odolez ditut eskuak zikindu.

Begiak zitun larri, beuron zuloetatik irten bearrean. Barruko larriak eragiten zion mingaiñari. Itz-jario gendukan gau artan eta pattarretan barruko arra il nai. Taberna zuloan geuden berarekin iru lagun zaar. Barru-barruko korapilloa askatu nai. Karga aztuña estomago-zuloan. Gonbito-larri eta nora-ara bota bear zikin aiek. Geu gerta giñan zikin-zulo.

\*\*\*

Zazpi illebeta dira guk emendik alde egin genduela...

Zazpi illebeta luze.

Zuk ez dakizu ondo..! Ñegu osoa mendian aterperik gabe. Euria eta bisutza, elurra eta kaskabarra... Ezurretaraiño bustiak, otza ezur-muiñetan eta izotza animaren biotz-erdian: eozkor eta legor. Espirituaren toleste izkutueneen gure aingerua illik... Deabruaren menpean...

Zer ari zera, gizon..?!

Guda anker onek maitasuna antzutu digu biotzean ete pizti nazkagarrien antzeko egin gaitu.

-Ez dizut tutik entenditzen.

Gerratean ezagutu nuen Petrikorena. Ezaupidea bai, besterik ez; beartuta egin bait ninduen euren arteko eta euren mendeko. Arrituta nengoen ark neri esan bearrekin. Begiak zeuzkan urrutian, beuren zulotik irtetzeko zorian;

ezpaiñetako ertzak txistu-aparrez, biboteko illeak dar-dar, ames-larrjan erortzeko larri:

-Aizu, etxekoandrea, kopatxo bana pattar ondoezak emango dio bestela-ta.

-Utsune illun batean erori nai nuke eta an illunpeetan neure burua galdu...

-Zer ari zera? Zer dezu?

-Ezin dut burutik kendu.

Zer da, baiña, burutik kendu nai dezun ori..?

**Aurpegiko giarrak eten bearrean, zimurak sakon eta luze gora-ta-bera bekoki eta matrail-ezur inguru guztian...**

Tinko.

Leertzeko zorian.

\*\*\*

Zubi ondo batean giñan, gure buruak erreka malkarrean gorderik, oiñak udetan. Egun-sentiaren argja, sutautsaren kolorea galdurik, urdiñez jazten ari zan. Txoriak beuren eztarriak garbitzen, egunari agur egiteko. Izaki guztietan Udaberria nabari, geure biotzetan ezik. Begiak mendi arren gaillurrean genduzkan josita, aitzaren erpiñean... Goi aretan bazan ezer, guz ez jakin, ordea, zar.

Zenbat ziñaten?

Gizaseme asko. Millaka. Bat-batean kañoi-burrunda aidean. Mendj-inguru osoa sutan. Ke-mordoak, perrotzikoan antzera, sortzen ziran gaillur aretan kañoi-soiñu bakoitzeko...

**Musika ederra.**

Ondoren ogeita amar egazti aitzeetatik zear beuren bonbak botatzen.

**Baillara osoa zarata-oiartzunez bete zan eta b;otzeko korapilloa zarata aretek lasaitzen zigun. Ñola argizari itzal-berriak keia darion, ala millaka kandelaren keiak Lemonako aitzeetatik zerurantz. Izugarrizko zurru-murru aren ondoren, ixilla. Txoritxuak ;zu eta mutu. Egun-sentia epel eta ixo. Errekako ur gardenak marmarioka itsasoruntz. Beste otsik, ez inguru guztian...**

Eta, zuek?

Gu mendi-tontorrera begira, bizirik ote zan iñor.

-Luze iraun zuten bonbardeak?

-Kañoi eta egazkiñek ordu pare bateko lana egin zuten. Turutak urratu zuan ixil-aldia. Jeiki nintzan lurretik eta mutllak ondoren nitula, ekion nion mendiko egaletik gora. Ez zan ikusten ezer ez-eta sentitzen ere... Ames batetik bezela, ametralladora batek esnatu nindun ta-ta-ta-ta-ta-ta... Ondoren garraxia, aiena, madarikazioa...

-Eta...?

Lurrari itsatsita gelditu giñan, alzuana al zuan tokian. Laparik ez da sekulan aitzari josi guk lurrari eldu giñun bezela... Oraindik ere bizi dituk madarikatu oiek... Burua jasotzen zuanari zuloa egiten zioten txapelean... Belar-izpi batek egiten zidan kili-kili sudur-zuloetan... Lurraren usaia bai usai gozoa eta sentikorra; ama lurraren babesak gordetzen nindun bere magalean. Lur-ikara batek azpia jango balidake...? Orduantxe susmatu nuen lur-erdibitze baten ikaragarria. Lurraren segurantza galduta, an galtzen dira gizonaren ziurtasun guztiak. Lurraren ziurtasunak ematen dio gizonari bere segurantza.

Luzaro egon ziñeten mogitzeke?

Ordu luzeak lurren gainean etzanik.

Ñoiz arte?

Íñularrean turuta otsa berriro: erre kara berriz ere izkutu billa. Gau osoa ibaiaren babesean izarreiri begira. Amabiak inguru izango zan illargia mendi-gaiñetik agertu zitzaigunean. Il-gora. Izotza. Ez jan eta ez lo. Errekako ura erateko. Esku-oiñak izoztuta eta burua galdatan. Ames eta ernai, lo-kuluska batzuek egin nituen.

-Gaua luze?

-Bai eta eguna zabaltzeko bildur. Bildurrakin batera, zirt edo zart egiteko gogoia eta irrika. Goizaldean kañoiak eta egazkiñak atzo baiño areago: Lemo-nako aitzak inpernuko ate.

Lagun berririk?

Oste berriak etorri ziran, batallaoi geiago. Guztiok mendira, bata bestearen ondoren. Eldu gera maldan gora erdiraiño. Lurraren kontra arnasa apur bat artu eta, gora mutillak..! Eun metro egin baiño lenen gure elkarteko amaika lagun galduta daude: ogeita amarretik, amaika. Zeiñ elduko da goraño?

Ainbeste bonbardeo eta oraindik bizj ziran?

Bai, bizi ziran; ez dakit nola. Goienengo gaillurrak zuloz beterik zeuden. Une artan eguerdi-eguerdia zan eta eguzkiak nolabait ere berotzen zuan apurtxo bat. Arri baten babespean gordetzen nuan neure burua. Eguzki epeletan tiroak alde guztik... Zein ederra dan bizja; nik, ordea, egoera artan bizitzarako itxaropenik ez. Etorkizuna beltzez egertzen zitzañdan goiz artan; aurrean nuen orma beltz aundia igaro eziña zan. Eguzki argitxua azalean, illuna biotzaren erdian...

Zer jokabide izan zenduten?

Arriskuan gaude denok, pentsa nuan eta kañoiak ekin diote berriro goiko armaillara. Egarri naiz; ai beko ur gardena banu edateko... Sukarra odoletan eta txorabioa buruan. Jeiki naiz: goraiño mutillak, gaillurreraño...i Jeiki eta etzan, zoro baten antzera, beti babes baten billa... Tiroa eskubitik eta tiroa ezkerretik, esku-bonbak arrika nun naj... Eldu gera goraiño eta gure etsaiak igesi dijoaz... Gurea da garaipena! Gora gu ta gutarrak! Aurrean zanga-zuloak; argaletik indarrak atera eta salto baten sartu naiz barrura pistola eskuan dedala. Ñi ikustean:

"Confesión!" deedar eritutako etsai batek.

"Que te confiese tu padre!" esanez bost bala sartu nizkion buruan.

Arnasa barru-barrutik artu du nere lagun onek eta arpegiko tinkoa lasaitu zaio, burua makur... Etsaiari ukatu zion konfesjioa, berorrek bear, gizarajo orrek. Badu bere bizitzarako naiko atsekabe eta konzintziko aztun...

Sagardotegikoak ixilik entzun zioten istoriaren amaiera. Une baten ondoren Anton Kalek artu zuan itza:

-Ori benetan gertatu zan?

Lemonako aitzak urdiñek artu zuten egunean.

Gogortxo dek.

Eta gerra ura zer izan zan, gogorkeriz asetako guda zital bat besterik? Orduko okerkeriak amaierarik ez dute: sinisgabeko ateoak egiñak aundiak izan

badira, gurutzedunek egindakoak ez dira atzean gelditzen. Aien okerkeriak berrogei urteen zear milla modutara entzunda dauzkagu; baiña, urdiñek egindakoen berri tokian tokikoek bakarrik jakin izan dituzte...

Bai, orduan ezaguera zutenek erailtze asko ikusi edo entzun izan dituzte gure artean, kamiokada gizaseme amiltegian bera botatzea bezelakoak...

Gure errietako edozein kirtenek egin dezake orrelakoak eta egin dituzte; baiña, kapellau bateri entzunda daukat "Brigadas Internacionales" oietako soldadu polako bateri gudazale kristauek egiña...

Zer zan, ba..?

Erasaldi batean preso artu zuten eta sokaz barrabilletatik lotuta erabilli ondoren, ametralladora baten ankakin errematatu.

Ezin liteke ori orrela izan.

-Ñik ez det asmatu. Entzundakoa esaten det itzez-itzez. Eta arek ez zuan penaz esaten, kontakizun xelege baten antzera baizik. Ez ziran karpeto-betonikoak; guretarrak baizik.

Anton Kalek:

-Ikaragarriak izan gaituk, onbidetik bezela txarbidetik ere. Loiolako Iñigo eta Xabierko Prantzizkorekin batera agertzen zaigu Lope de Aguirre "El Traidor", Araoz'ko semea, Felipe Igarren aurka jeiki zana, eriotza zabalduz bere inguru guztian. Iurak, bakoitza bere bidetik, aundiak. Badira kaskarrak ere biotzgabeak. Ona mixiolari batzueri gertatua:

## KATU BELTZ

Urte asko dira Euskalerra Ameriketara begira asi zanetik, ango erri atzera-terri Kristautasun bidean laguntzeko. Gazteizko Elizbarrutiak, irutan zatitu aurretik, mixiolariak bidaltzen asi zan. Ñaparroak ere bialdu izan ditu; baiña, bere kasa jokatu du beti gauza auetan bezela besteetan ere.

Mixiolari artean Euskalerritik Ameriketara eta andik onerako joan-etorriak ugaritu ziran. Ekuador'eko Los Rios probintzia aukeratu zuten asierarako. Geroago El Oro'ra zabaldu ziran. Andik Manabi'ra, Venezuela'ra, Brasil'era, Angola'ra, Ruanda'ra... Ñora ez?

Ekuador Ego-ameriketan dago. Curaçao, itsas-ertzeko erri aundi eta naasia, zan Euskalerritik arako bidean tarteko. Bere moilletan enda eta arraza guztietako kristauak billa zizezkean: esnea bezin zuri eta kafea bezin beltz. Baita kafe-esne kolorekoak ere: mulato eta kriollo, enda guzien ondorenak.

Egun artan bi mixiolari, itsas-ontzitik irtenda, moilletan itz-jario:

Zenbat euskaldunen olñek zapaldu ote dute moilla auk..?

Cristobal Colon'ekin asi, bere barkuko euskaldunekin, eta arrezkero etengabeke errekada luzea...

Geu ere aien tartekoak gaituk.

Izan ere euskaldunok ez gaituk jaio geldi egoteko.

Lurralde eman zigun Jainkoak eder. Millaka urteetan egon gaituk Auñamendi itsatsita bezela geldi; Geure jatorria mendiari lotutako baserrietan zeukagu... Zer arrano gertatzen zaiguk..?



-Biotza urduri eta eziñ-egona zaiñetan; lur zabalagoak bear, nunbait.

-Bai, gizona. Millaka urteetan geldi egoteko kapaz gaituk. Bitartean, ordea, mundu borobillari buelta osoa emango dion euskaldunik, gogora zak Elkanogetariarra, ez dek egundo faltako Euskalerrian...

Ilargian ere ataundarren bat ba ornen da, diotenez...

Tipoloji gaieko ikerketa bat egiteko ez giñake gu elemento txarrak izango, etxetik kanpora gabiltzanotik asita...

Euskaldunok, beste erri askok bezela, badiagu guk ere berezko jatortasun bat odolak emana...

Izketan ari aizela Uzkudun zetorkidak burura eta bera bezelako indartsu asko. Karga jasotzen eta aizkoran iñor ez bezelakoak...

-Boxeoan ere Europako txapeldunik ez dek gure artean falta.

-Gorputz tinko lerdena eta bei batek aiña indar. Orrelako tipoak maiz jaio-tzen dituk gure mendietan...

"Arta-buru" galantak ere bai; baiña, baita ere buru argikoak eta ez bat ere tontoa, bizkorra eta maltzurra...

Zenbat orrelako sortzen ditu gure lurrak...

-Gure baserritik lurralde zabal auetara ekarri eta eman bota libertada osoan... Eta, zer gertatzen ote da?

-Kirten galanta izateko aukera ederra.

-Baita Bolibar baten antzeko, ere.

\*\*\*

Izketan ari zirala, ikatza baiño beltzagoko emakume gazte bat aldamenean jarri zitzaien eurari begira-begira eta esaten zutena entzun naiean... Mintzo andreak:

Zuek euskaldunak zerazte.

Ñundik antz eman diguzu..?

Tankeran eta izkeran. (Andrea erderaz ari zan).

Euskeraz al dakizu?

Ez, ez dakit askotan entzun arren. Zuek beste jaun batekin erderaz ari izan zerate; bakarrik geldi zeratenean, ordea, beste mintzo bateri eldu diozute...

Eta?

-Euskeraren antza artu diot. Gaiñera zuek nere gizonaren antzekoak zerazte...

-Bai?

Bai, jauna. Arren tankera eta itxura dezute biok.

Euskalduna al dezu ba gizona..?

Bai, euskalduna nuen.

-Ilda daukazu?

Ez .

-Gizona euskalduna "zendula" esan diguzu...

Euskalduna nuen, bai. Gaur nere aldamenetik joana det eta ez dakit nora.

Alde egin zidala, orixe bai, badakit.

Besterik gabe utzi al zaitu?

-Bai

Ori jokabide eskasa da...

Ñeretzako ona zan.

-Ez du orrelakorik ematen...

Ñik asko maite nuen. Ñere semetxo au berea da.

Ori esatearekin batera, bere semetxoa erakusten die: bel-beltza; kirkirra baiño beltzago.

Berea da...?

Bai, berea da .

Bere aurrekoen antzik ez du.

Ñere aurrekoena bai, ordea. Eta semea biona degu.

Zer izen du?

!zen euskalduna.

Euskalduna, e...!

-Aitak zionez, bai.

-Eta, zer izen?

Katu-beltz

\*\*\*

Guk, astuok, astakeriak egiten ditugula esango du gizonak; baiña, orrelako gizonkeririk ez degu guk sekula egingo: katua-izena ipiñi bere semetxo bateri, alazankoa...! Bere ondorengo bat katu-maillara jetxi...! ? Ñoizko dute gizatasuna eta arrotasuna...? Utikan gizona! Lotuta naukatelako; bestela alde egin nuan... Bai orixe. .Gizona al da izaki guztien errege...!? Ñagon asto.

(Periko, Fortuna)

ARRIÑDA TAR AÑES  
1969 EKAIÑILLA

### **Belarriak adi ta arkatza arin**

Zezen-enzierrorako zai geuden eta gau pasa eginda gazte-taldeak zebiltzen eta gazte baten aitak guri:

- Auen oivak artu bear duten zapaldua!

(Anes Deba' ko)


Lazkao'ko esaera zaar bat:

"Kastatik kondea eta zepatik matsa".

Beste bat, erderaz edo:

"El genio del kristau-género, del zain viene".

(Anes Lazkao'ko)



## ILLETAK JOAZ

Egia da, neure idazle-bizitzan askotan jo bear izan dot ilkanpai nagusia. Adizkideagandik banatze ordua garratz jat beti be, baita olakoaren eriotz-izparrara emote. Gehiago, olerkari batena danean, odol-tantaz gorritzen daust barrua.

Asko ez dala esan euskun, ilurrean beintzat, bere azken agurra, ni konturatu be egin barik (kanpoan bait nintzan), ba-noa be esan barik. Eta au beti dozu gogorra. Egia ez ete?

Antxiña-antxtiñatik giñan adiskide samur. Bera gaxtetxo, Donostiko Seminarioan ikasle eta ni Larrea'n, Karmel'en zuzendari, ak eroadan onen ardurea, ainbat arpide barri zuzeendu eta auron arpide-kontua zintzo-zintzo jaso ta niri bialdurik. Mesede-egille egiaz-egiazkoa zan niretzat; arrezkero guztian, erioztzararte, ez jatan iñoiz be eten edo otzitu alkarganako lotura bikaiña. Gerozkotan orobat ez bedi ez eten ez otzitu su orren kemena. Emen bai datorrela ego-ki, esan eder au: "Egun aundirarte!".

Mezakotuta laster, Aizarna'ko parrokira bialdu eben, an egin neutsozan ainbat ikustaldi pozgarri, gero urteetan Errexil'en, ango jai eta omenaldietan alkar agurturik. Beti lagun eta langille zintzo. Ñik noznai benetan maite izan dodazanak: txori-kantak udabarrian kantaria erekarten. Zein emen zein an, gizarte zabaleko gure Jesus.

Euskal arazoa jakon eder umetatik. Gurasoen altzoan ikasitako euskera, obeto ikasi, jantzi ta edertzen alegindu zan bizitza guztian. Eta idatziz ikasi oi da batez be. Luma atzamar artean, irakurteak laguntza ederra emoten dauku ortarako; nik dakidala, Aita L. Akesolo'k olan jardun eban geienik. Irakurri eta irakurriz jausten ziran itz, esakun eta pentsamentu urtenenak eskuratuz txortak egiñik, onek benetan laguntzen dautzu, zeure idazkera landu ta jantzi dotorez apaintzeko.

Euskal langille aspergaitza genduan Gaztañaga; idaz-lanak poz berezia ekartsona. Atsegin jakon Zaitetik argit ratzen eban "Euzko-Gogoa" eta an asi zala esan geinke bere idazle-joera, baita laguntza be, eta idazle ta laguntzaille lez agiri jakun aren orrietan. Gero "Jakin", "Laiaketan", "Zeruko Argia", "Agur", "Karmel", "Olerti", euskal aldizkari onein ateak zabalik eukazan; azkenez, al, alean, Ñaparroa'ko euskaldunak izan ditu gogotan, ango egunkariei euskal lanetan lagundutik. Labur, ari ta oni laguntza ezarriz bizi izan jaku.

Idazlea geienetan pozik jatzu asten. Augaitik nik ezin neinke ori autortu, ez dakit eta; alan be, Olerti asi zanetik, or dogu geure poesi-saillean. "Zortzikote"-n (1962, I-II), "Musika" iru sailleko lan bikain au daukazu.

"Musika... Jo ta jo tan-tin-tan pianoa...  
Aurrea illun... zeru-izar antzekoa  
nun nai: bide, baserri, ta bertako zela;.  
Pianoa xamurki tin-taneean alai.  
Egunberri-abestik datorkit burura...  
Goxo ta eder aztuz, majz naute lillura.  
Entzumen-uts, entzuten neukaten arduraz:  
Barnera bilnaizen au, ta biotz-ikaraz,  
lerte-zurren bakoitzez. Ardo goxo moskor  
lez nigan, zoratzen naun pil-pil kilimakor.

Abestiok, Gauzonez soillik, aal entzun...  
Tamala! Zertan Jainko'k musikari enindun...?  
Barrena, kilima-gose...: zoramene-egarri,  
zentsumenez... Abesti-eske nago larri.  
Ñai ainbat aldiz... naizu... beti entzuteko...  
Musika nik nerekin... zeru!... ibiltzeko...!  
Jainko, entzuidazu, ba, jar abesle-eztarri... !!  
Zertan, Musika-lturri, ez ni musikari...?

Oler-lan au ez ete eder-legeak zainduz egiña? Irudimena arrotzen dau,  
Barruan daroan kemenari sua emoten dautso, buruko adoreari indar betea eta  
biotzari galda. Zeuk be al dozula orrenbeste? Egia? Eta egiten ete? Gure izke-  
ta aberasteko, al izan eta biderik artu ez? Jokera ona al dozu? Onela edo,  
poeta eta zorazka, danok ei gara pizkat.

Olerki polit bat osotzeko, ez dozu bear neke aundirik. Eguneroko zer dau-  
kagun zer arrunta, buruz jaso ta biotzez berotua; gauza lau eder bat eder-  
gozo adierazoa. Pianu-joten ziarduela, begira zelako burutapenak eta biozka-  
dak jagi jakozan. Eta zuk: "Ñeuk be ez egingo beste ainbeste?". Zergaitik ez  
dozu biri-biltzen poesi-lan xume atsegingarri dana?

Ezta naiko orraitino neu be olerkari naz esatea; jakintza ta zientzi guztietara-  
ko lez, teknika, gauzea zelau osotu bear dan jakin. Poeta edo bertsolari arna-  
sa, dei berezitat, gaztetan barne oartzen dauanak gai orri ekin bear dautso,  
eta ekinaz-ekinaz, teknika lortzen da.

Gaztañaga'k bezela, bear bada? Ak beintzat, eguneroko ikas-arazoa albora  
itxi barik, euskal literaturari be berea emon oi eutson, eta pitean potean poesi  
laburrak idatziz, euskerari, bai bertsoz eta bai itz lauz jardunik, benetako gozo-  
tasuna (ori derakusu aren lanak) daroenik ezin. Jokabide orrek, izan be, berez  
garoaz idazle jator izatera.

Esana dot lendik be, irakurriz, idatziz eta ikusiz, or gu egiñik idazle bipil. Iku-  
siz? Bai, eta ez kaskar. Bai aldea ibiltari batetik bestera. Egun batzuk dirala,  
egun atsegiñez, Leire'tik izan nintzan, lagun bigaz; andik aste bira, or gu geure  
ibilladiari eragiñez; urlia guztiz barritsu egun aretan ikusitako ederrez, sandiari  
ez eutson ekarri guk irurok igarotako egunak. Eta irurok, urliak, sandiak eta  
nik, bide, erri, oroigallu eta leku bardiñak ikusi ta miretsu genduzan. Zer dala-  
ta diferentzi ori, gero geure txango atsegiña barriro azaltzean?

Or unteza! Ni ara nai ona jo, begi-luze noakizu; lagunak ez ainbeste, urrean.  
Idazle danak asko ikasi oi dau ibilliz. Zinema mintzean letxe josten jakoz gau-  
zak begi-luzeari, eta olan ez dana len bezela geratzen da, ezer barik.

Errexil lur eta baztar bikaiña, ementxe osotu eban urte askoz bere arima zaintza: maite zitun bere ardiak, eta oneik be euren aldetik maite eben, ezagutzen ebelako, aren leialtasun zuzena, erritarrak, euskal lana, zuzentasunaren baratzean. Egiazko miñetan itxi ebezan aren eriotzak. Jainkoak noizik bein bialtzen dabezan artzañak. Guk naigabez eroan arren, egin bedi beti guraru aundia.

Igaz gabon-aurretxoan eski euskun Euskerazaintzakoai, azken urteotan osotoriko liburu mardula; euskal literaturari azken egunetan egindako opari biguna, euskera ta eleizearentzat ezin ohea.

Langille zorrotza zan Jesus, eta olakoak goizetik gabera, minutu ta ordu guztiak neur-azoak ebazan. Iñoiz bere ez naste eta zer-urtengo; neurritz eta eraren muga-barru jokatzek on ederrak dakaz; origaitik iñoan gure idazleak: "Aldez-aurretik egizu eguneroko lan-eraketa bat". Erramiña damost niri goizero zeri oratu ez dakiela dabilzanak. Eguneroko eraketa neurritsuz ba'diardugu, igarri barik zenbat gauza garrantzitsu dagitzan gure kemen adoretzuak!

Ona beste kontseju sakon bat arek emon oi ebana: "Beti toki berean eta ordu beretan ikasteaikastea, oso mesedegarri da". Ñeuk be enenkian olakorik, baiña au irakurri ondoren, pentsa ta pentsa nabil, eta ondorioz egia dala deritxat. Ñik neure gela ixillean, gelenez beiñik-bein, ikasi, idatzi ta irakurren dot, eta ementxe dagit ondoen neure eguneroko jarduna; alan be, ortu ederra daukat gelapean eta jatsi oi naz ez gitxitan, orain zartzaroan atan be, eta an ez dot izaten ainbeste giro buru-lanerako, txoriak, zugatzak, lorak, gogoia arin galduseragiten daustelako; ibilliz datorkidazan gogai bikaiñak papereratzan sarri egokitu bear neure egoitza berezian.

Auxe beste doe bat, Gaztañaga'k eukana: filosofu genduan. Berau galtzekak, jakiña, min emoten. Min ikasgarri izan bekigu.

AITA OÑAIÑDIA

Serbitzu ta on egiten beti,  
alde guztietan ixilla;  
jaio ta bizi diruz beartsu,  
otoitz berotan abilla...  
Artzai on izaten saiatu zana,  
Artzai on izanez emendik joana.

Gurasoengandik artutako ondorea,  
zituan egia ta zuzenbidea.  
Bere biotzeko maitasun aundiz lotuak:  
Jesus, Maria ta bere Eliza Ebanjelioan,  
Euskalerrria, ta Euskal garbia mundugiroan.

Aita ona: ar ezazu zure etxean,  
emen ibili zana lanpean.  
Ar ezazu betiko argian,  
zuzentasunaren egian.

# EUSKAL - ERRIA'REN ETORKIZUNA...!

Ikastolako jaialdi baterako antzerkitxoa

AntzezLariak: I. Andereñoa.  
Aitor.  
Araba.  
Bizkai.  
Gipuzko.  
Ñaparro.  
Bertsolaria.  
Benaparro.  
Lapurdi.  
Zubero.  
II. Andereñoa.  
Mikel.  
Ainhoa.  
Txaber.  
Mirentxu.  
Asier.  
Amaia.  
Ander.  
III. Andereñoa.  
Txistularia.  
Ikusleak.

OARRAK:

- 1.- Andereñoak, ikastolako egiazko-andereñoak izango dira.
- 2.- Ikastolako ume-azi batek izan leike Aitor. Eta orrelako umerik ez ba'le-go, izan bedi irakasleetako bat.
- 3.- Ikastolako umeak izan bear dute beste danak, eta berdin da, bertsolaria, neskea edo mutilla izatea.
- 4,- Txistularia ez da azken-ordurarte iruditegian agertuko...!

## IRUDITEGIA

Sukalde bat, baiñan ez, edozein basarrietako sukalde bat, jauregi-zaar eta eder bateko sukalde bat baizik. Tximini-ederreko su-bajua, narruzko eserlekua duten aulki bat edo beste ta mai sendo bat...

I. Andereñoa Jaun-andreak...! EUSKAL-ERRI du bere izena jauregi onek.

Munduko jauregietan zaarrenetako bat, zaarrena ez baldin ba'da.

Baztar-ederrak ditu: mendiak ugari, lur-zabalak ez gutxi, belardiak asko, basoak ez gutxiago ta itxaso-zati eder bat.

Euskal-erria'n zaudete beraz.

Ezagutu ditzagun orain bertako biztanleak.

Aitor agertuko da ikusleen ezker-aldetik. Zaarra izan arren, gordiña agertzen da oraindik. Ille-luzea du, ta ardi-narruz jantzia dator, leengo euskaldunak bezela. Abar-kak eta mantarrak anka;betan eta aragi-bizian belaun-buruak.

Aitor degu au: euskaldunen aita...!

Aitor Aitor naiz, bai...! Ta euskaldunen aita. Ta euskaldunen aita-izateak ematen dit pozik aundiena. Baiñan baita kezkarik aundiena ere...! Ñoiz-arte izango ote naiz izen orren jabe?

I. Andereñoa... Euskaldunok naiko degun arte...!

Aitor Egia diozu, Andereño: euskaldunak naiko dezuten arte...! Baiñan noiz-arte naiko ote dezute ori euskaldunak...? Ñoiz arte...?

Eta Aitor ikusleen eskui-aldetik izkutatuko dan arten, oiartzunak, gero ta urrutiago "noiz-arte", "noiz-arte" erantzungo du iru biderrez.

Araba, Bizkai, Gipuzko, Ñaparro, Benaparro, Lapurdi ta Zubero agertuko dira, bana-banaka, ikusleen ezker-aldetik.

Ardi-narruzko jantzi ordez, beso-motzeko soiñeko bat ekarriko dute auek, eta bere eskualdeko ikurra, norberak, bere soiñekoan.

Abarkak eta mantarrak anka-bietan, eta agirian belaun-buruak.

I. Andereño Araba dezute au...!

Araba Eta Gazteiz degu arabarrok gure uri-buru. Mendi batzuek baldin baditugu ere, lauak dira gure lur geienak. Gazte!-erriakin ditugu gure mugarik zabalena, eta ortik datorkigu, euskaldun bezela, gure arriskorik aundiena...!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko da Araba, ta ikusleen ezker-aldetik agertuko Bizkai.

I. Andereño Bizkai dezute au...!

Bizkai Eta Bilbo degu gure uri-buru. Ta burni-meatzak ta Ibaizabal'eko lantegi aundiak, ipar-aldera bota digute gure euskera. Gorko al'gaitu, ala ere, euskaldun, Gernika'ko gure arbola santuak.

- I. Andereño      Zutik, jaun-andreak...! Erantzi zuen txapelak gizonezkoak, eta abestu dezagun danok, gartsuki, Gernika'ko arbola.
- Ikusleak      (Zutik)      Gernikako arbola  
da bedekatua  
euskaldunen artean  
guztiz maitatua...  
Gernika'ko arbola  
da bedekatua  
euskaldunen artean  
guztiz maitatua...  
Eman da zabal zazu  
munduan frutua  
adoratzen zaitugu  
arbola santua.  
Eman da zabal zazu  
munduan frutua  
adoratzen zaitugu  
arbola santua...!  
Gora Jaungoikoa ta  
Lege Zarra. Gora...!  
Txistulariak lagundu-ta, errezago abestuko luteke ikusleak GERÑIKA'KO ARBOLA.
- Bizkai      Eskerrikako, euskaldunak...!  
Eta ikusleen eskui-aldetik jzkutatuko da Bizkai ta ikusleen ezker-aldetik agertuko Gipuzko.
- I. Andereño      Eta emen dezute Gipuzko: Euskal-erriko biotza...! Atzerritarrekin mugarik ez duan, Euskal-erriko erri bakarra, ta bere txikian aundiegia egiten ari zaigun erria...! Donosti du bere uri-buru.
- Gipuzko      Aundi-izateak ez luke kalterik, euskaldun iraungo ba'nu...!
- I. Andereño      Eta iraungo al'dezu...?
- Gipuzko      Ez dakit...!  
Eta ikusleen esku-aldetik ezkutatuko dan artean, oiartzunak, gero ta urutiago "ez dakit", "ez dakit" erantzungo du iru biderrez.  
Ñaparro agertuko da ikusleen ezker-aldetik.
- Ñaparro      Barkatu, andereño, baiñan nik-neronek egin dezaket nere buruaren aurkezpena... Ñaparro nauzute, ta lruña det nere uri-buru... Prantzi ta España-arteko bidea nintzalako-edo, nik jaso bear izan nituan, bai alde bateko erasorik aundienak, eta bai bestekoak ere... Euskal-Erria'k, ala ere, ez du gure Erregeen-babesean aiñeko batasunik ezagutu... Baiñan batasun orrek etzuan, bear-aiña, iraun, eta orduan galdu genduan, zoritxarrez, gure askatasuna. Ta gure askatasunarekin gure izkuntza ere...! Baiñan badegu Aralar'en gure santutegia: Mikel, Mikel, Mikel gurea, zaizu, zaizu Euskal-erria...!  
Abestu, euskaldunok...!  
Eta ikusleen eskui-aldetik ezkutatuko dan artean, abestu bezate ikusleak...



Ikusleak            Mikel, Mikel, Mikel gurea  
zaizu, zaizu Euskal-erria...!  
Eta irudi-atzetik agertuko da Bertsolaria.

Bertsolaria Barkatu, andereño...! Bertsolari bat nauzu, ta zure jardun eder  
au moztuko ba'det ere, bertso bat abestu nai nieke ikusleeri,  
Benaparro, Lapurdi, ta Zubero emen agertu baiño leen...!  
Ematen al'didazu, ortarako baimenik...?

I. Andereño        Emango ez dizut, ba...!  
Bertsolaria        Entzun danok, bada...!  
                         Une onetan aipatzeko da  
                         gure Bidaso ibaia,  
                         Jangoiko onak Euskal-errian  
                         apaingarri ipiñia...!  
                         Gure betiko etsaiak, orde  
                         ausi-nairik gure erria,  
                         muga biurtu ziguten eta  
                         zatitu Euskal-erria....!  
                         Txaloak joko dizkio Andereñoak eta txalo-artean izkuta-  
                         tuko da Bertsolaria iruditegi-atzean.  
                         Benaparro, Lapurdi ta Zubero agertuko dira ikusleen  
                         ezker-aldeetik.

I. Andereño        Eta auetxek ditugu, bertsolariak aipatu digun Bidasoa-ibaiko  
                         muga galgarri orrek, gugandik aldendu ziztuan gure iru anaiak:  
                         Benaparro, Lapurdi ta Zubero. Izan bedi zuentzat gure ongi-  
                         etorririk jatorrena...!

Benaparro         Benaparro nauzute ni, ta Donibane-Garazi dut nere uri-buru.  
Zubero             Eta Zubero ni, ta Maula dut nere uri-buru...!  
                         Eta "Agur Zuberoa" jotzen asiko dira txistulariak irudite-  
                         gitik-kanpora, ta txistulariekin-batera abestuko dute  
                         ikusleak ere.

Ikusleak            Agur Zuberoa,  
                         bazter guztietako txokorik ederrena.  
                         Agur, Aterratze,  
                         zurekin ditut ametserik goxoenak;  
                         biotzaren erditik  
                         bortzetan jalki ditadazut asperena:  
                         zu utzi geroztik  
                         bizi naiz tristerik, abandonaturik,  
                         ez baita erririk  
                         Pariz ez besterik,  
                         zu bezalakorik.  
                         Sor-lekua utzirik gazte nintzalarik  
                         Paris'era joan nintzan kurariez beterik,  
                         plazerez gose eta buruan arturik  
                         bear nuala alegara bizi;  
                         bortzetan geroztik negar egiten dut  
                         Zuberoa'gatik (bis)

Eta ikusleak abesten ari diran bitartean izkutatuko dira, ikusleen eskuj-aldetik, Benaparro, Lapurdi ta Zubero.

I. Andereño      Eta barkatu, jaun-andreak, nere aurkezpen ontan aspergarri izan banaiz ere.  
                                    Eta Aitor agertuko da ikusleen eskui-aldetik.

Aitor              Ez daukazu, zergatik barkamena eskatu, andereño. Ederra izan bait-da, eman dezun, ikasbidea.

I. Andereño      Ala iruditzen al'zaizu Aitor...?  
Aitor              Asko bait dira gure artean, ZAZPIRAK-BAT ikurra, paparrean eta berebilletan erabiltzen dutenak, baiñan gutxi dira, zoritxarrez, ikur orrek, zer adierazi nai duan, dakitenak... ZAZPIRAK-BAT.

I. Andereño      Gure Jainkoarekin gertatzen-zaigunaren antzeko zerbait: lurraldeak zazpi izanarren, bakarra dala, alegia, Euskal-erria.

Aitor              Orixe da, bai, ZAZPIRAK-BATEk esan nai duana. Ederki, andereño...! Baiñan beste mesede bat eskatu nai nizuke orain.

I. Andereño      Zuk nai dezuna, Aitor...!  
Aitor              Akullu-antzeko zazpi makilla nai nituzke...!  
I. Andereño      Makilka asteko...?  
Aitor              Ez, Andereño, ez...! Makilka asteko ez, nere zazpi semeeri, ta emen bildu diran ikusle guztieri, ikasbide eder bat emateko baizik.

I. Andereño      Ortarako nai baldin ba'dituzu, laister izango dituzu, Aitor.  
Aitor              Ñlk-neronek lagunduko dizut, Andereño...  
                                    **Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira Aitor eta I. Andereñoa.**  
                                    **Iruditegi-atzetik agertuko da II Andereñoa.**

II. Andereño      (Kanpoan jolasean ari diran Umetxoerj) Jolaserako ordua bukatu da, eta ikastolara etorri bear dezute orain.  
                                    **Eta ikusleen ezker eta eskui-aldetik sartuko dira ikastolako umetxoak. Ñeska-mutillak dira, ta lurrean eseriko dira ikusleeri bizkarra emanaz.**  
                                    **Auen aurrean, eta aulki batean, eseriko da II. Andereñoa, ikusleak ondo ikusiko duten eran.**

II. Andereño      Ipui bat esan nai dizutet, eta jarri zaitezte lurrean, umetxoak.  
Mikel              Alaia alda ipuia...?  
II. Andereño      Ez, Mikel...! Ez da alaia, negargarria baizik, eta euskaldunontzat, batez-ere...  
Mikel              Ñeri etzaizkit ipui-itunak atsegin...!  
II. Andereño      Gaurko-au atsegingarri izango zaizu, orde...  
Mikel              Bai,?  
II. Andereño      Bai, Mikel, bai...! Ama-Euskera gaixoaren ipuian bait-da. Entzun zaidazute, bada, arretaz...  
                                    **Zuek dakizutenez, zazpi dira Euskal-erria osatzen duten lurrak. Ementxen izan ditugu arestian... Esango al'zizkiazuke, zuk Ainhoa, zazpi lurralde oien izenak...?**

Ainhoa              Esango ez dizkizut, bada...! Ez alinaiz ba, ni ere, euskalduna...? Araba, Bizkai, Gipuzko ta Ñaparro, Lapurdi, Zubero ta Benaparro...!

- II. Andereño Ederki, Ainhoa...!  
 Ainhoa Eta utziko alididazu, nere aitak erakutsi didan, bertso bat kantatzen...? Pello Mari Otaño'rena izan bear du gaiñera.
- II. Andereño Kanta, ba, bildurrikan gabe, Ainhoa...!  
 Ainhoa Arbola baten zañetatjkan  
 sortzen diran landariak  
 bezela gera, Bidasoa'ren  
 bi aldetako jendiak:  
 berdiñak dira gure jatorri  
 oiturak eta legiak,  
 Ama-Euskerak magal berian  
 azitako senideak...
- II. Andereño Egia dio Pello Mari Otaño'k, Ainhoa, Ama-Euskera'k azitako umeak gera euskaldunok.  
 Baiñan gure erri onek, Gipuzko'k ezik, muga zabalegiak izan ditu atzerrietako erriekin. Eta ortik asi zan, asi ere, gure Ama-Euskera'ren naigabea. Muga-orreitatik kanpora bota baitzuten lenengo.
- Txaber Zergaiti, ordea...?
- II. Andereño Edo antzeko zerbait...! Gaur-bertan ez du gure Euskerak, erriko eskoletan sarrerarik. Eta oraindik urte gutxi, zigorkatu egiten zuten eskola oietan, euskeraz itz-egiten zuan oro.
- Mirentxu Ez da ori, egia izango...?
- II. Andereño Bai, Mirentxu, bai...! Ta au da okerrena: ontzat ematen zutela, orduko euskaldun askok eta askok, irakasle auen jokabidea...!
- Mirentxu Ñolatan, ordea...?
- II. Andereño Jakintza-gaietan, aurrera egiteko, euskeraz itz-egitea, eragozpen bat zala, ta kitto...!
- Asjer Eta ez alda, ala...?
- II. Andereño Zergaitik izan beardu du, Asier...? Munduko beste izkuntzak ez baldin ba'dira, zergatik izan bear du Euskera'k, jakintzarako eragozpen bakarra...?  
 Aitzaki auek zirala-ta, beren etxeetako ateak itxi zizkieten, euskaldun askok, Ama-Euskera'ri...! Mingarria benetan. Eta, ala ere, urte batzuek geroago, asiko zan gure Ama-Euskeraren benetako nekaldia...!  
 Gure lantegi-tximinetako kea ipar-aizeak zabaldu zuan orbera, ta bizitza egokiago-baten billa-edo, asi ziran atzerritarrak, Euskal-Errira etortzen: banaka lenengotik, eta pilloka gero. Ta erdaldun biurtu zizkiguten gure lurraldeetako uri-buruak. Eta Ama-Euskerarentzat etzan lekurik, etxe banaka batzuetan ezik, ez Gazteiz'en, ez Bilbon, ez Donosti'n, ez Iruña'n, eta ezta, Bidasoaz-aruzko, Maule, Donibane-Garazi ta Baiona'n ere...!  
 Eta erri txikietan izkutatu bera izan zuan Euskerak bere burua, lotsaren-lotsaz. Baiñan ez luzarorako...!  
 Ola-gizon biurtu zitzaigun basarritarra ere. Eta leen arto-so-roak-eta ziranak, burni-ola biurtu ziran. Eta erri txikietan ere,

erri aundietan gertatua, gertatu zan. Eta basarrietara jo bear izan zuan azkenean, babes-billa, gure Ama-Euskera'k...! Baiñan basarrietako neskatzak, etzuten kalekoak baiño gutxiago izan nai, ta erderari eldu zioten kalekoak bezelaxe. Gure Euskera-zaarra baiño dotoreagoa bñllatzen zuten noski...!

Amaia                    Eta zergatik izaten da ori...?

II. Andereño        Zer, Amaia...?

Amaia                    Mutik geienak euskeraz itz egiten baldin ba'dute, zergatik egin bear degu erderaz neskak...?

II. Andereño        Arrazoi dezu, Amaia...! Baiñan ba'dakizu, gaur zer esaten dan: arrazoi dezu, baiñan kartzelara joan bear dezu. Ta erderaz jarraituko degu, zoritxarrez, neskak.

                          Baiñan ausartuko nitzake, beste gauza bat esaten ere: erru aundia izango degu, bai, neskak, Euskeraren zori-txarrean, baiña, nere ustez, ez gera neskak errudun bakarrak.

Amaia                    Ñortzuk dira besteak...?

II. Andereño        Gerotxoago esango degu ori, Amaia. Laga zaidazu orain, nere ipui au amaitzen...!

                          (!kusleeri) Entzun zaidazute orain zuek, euskaldunok. Egia da bai, baztarrik-baztar dabilkigula gure Ama-Euskera, nun zoko baten billa. Ez bait-du gaur, Euskal-erri bertan ere, arrera onik...!

                          Baiñan ez da gurea, erru bakarra. Guk aiñeko errua ba'dute, euskera-bera aitzakitizat artu, ta burruka bizian ari diran euskal-idazleak, eta, euskaldunak izan, eta bere etxeetan erdera onartzen duten gurasoak...!

                          Eta Ama-Euskera ez dago gaur, jolas oietarako...! II-zorian bait-degu, azken-arnasa nun emango, zoko baten billa...

Amaia                    Etorri dedilla gure lkastolara...!

II. Andereño        Ai, Amaia, Amaia...! Ikastolara etorriko zeran artean, euskera goxoa egingo dezu zuk ere, baiñan bildur naiz, ez ote dezun zuk ere, beste neskatzak bezelaxe, euskera baztartuko, ikastola uzten dezun bezein laister.

Amaia                    Ñik ez det, beinere, ikastolarik utziko...!

H. Andereño        Ori egia izatea, zorionekoak gu orduan, Amaia...!

                          Eta Ander jeikiko da ume-artetik, eta iruditegiko aora joan, eta onela abestuko die ikusleeri.

Ander                    Guraso maite, zueri nator  
                          konseju bat ematera,  
                          zuek euskeraz itz-egitea  
                          guretzat ez da naikoa.  
                          Ez zaiguzute arren erantzun,  
                          ez euskeraz, ez erderaz,  
                          gure galderak ez baditugu  
                          egiten beti euskeraz...

II. Andereño        Entzun dezute, Jaun-andreak...! Eta Aitor-eta emen diralako, uztu dezagun leenbaitleen iruditegia. (Umetxoeri) Agur, eta biar arte.

- Umetxoak      Jaungoikoa'k nai baldin ba'du...!  
                   Eta ikusleen eskui-aldetik ezkutatuko dira orain umetxoak  
                   eta II. Andereñoa. Umetxoen-atzetik au.  
                   Aitor eta I. Andereñoa agertuko dira ikusleen ezker-aldetik.  
                   Luzean berdiñak diran zazpi makilla ekarriko ditu onek.
- I. Andereño    Entzun alidezu, Aitor, umetxo orrek abestu duan bertsoa...?  
 Aitor Entzun det, bai...! Eta beste oillar batek joko liguke, Euskal-  
                   erria'n kukurruku, orrek esana, guraso guztiak beteko ba'lute-  
                   ke...!
- I. Andereño Ez da naikoa, izan ere, euskeraz erantzutea. Guraso batek ez  
                   lloke erantzun ere egin bear bere umeetako bati, onek erderaz  
                   ;tz-egiten dionean. Onela beartuko luke-ta, euskeraz itz-egi-  
                   tea...!
- Aitor Egia diozu, Andereño...! Ta onelakoxe ikasbide bat eman nai  
                   nieke gaur, nere zazpi semeeri. Ta ortarakoxe ekarri ditugu,  
                   ekarri ere, zazpi makil oiek...! Baiña lokarri bat bear nuke orain.
- I. Andereño    Lokarri bat...?  
 Aitor Lokarri bat, bai...! Baiñan ez edozein lokarri .... ! Billatuko al'-  
                   zenduke zuk, baztarrrik-baztar negarrez dabillen, gure Ama-  
                   Euskera ederra...?
- I. Andereño    Billatuko ez nuke, ba...?  
 Aitor            Zoaz, ba...! Ta eman daizula bere gonako zirrinda bat...!
- I. Andereño    Eta emango al'dit...?  
 Aitor            Ñeretzat dala, esaten ba'diozu, bal...!
- I. Andereño    Esango diot, bada...!  
                   Eta leen utzi ez baldin ba'ditu, utzi ditzala orain zazpi  
                   makillak mai-gaiñean, eta izkutatu dedilla ikusleen ezker-  
                   aldetik.,  
                   Makilleri-begira geldituko da Aitor. Eta iruditegi-atzetik  
                   agertuko da III. Andereñoa.
- III. Andereño    Sartu alileike...?  
 Aitor            Aitor'en etxean, irikiak dauzkate beti atepak, euskaldunak.
- III. Andereño    Milla esker, Aitor...! Baiñan aitorketa bat egitera natorkizu; min-  
                   garria izango zaizun aitorketa bat, bear-bada...  
                   Ondo dakizu zelatari gerala emakumeak, eta zure zazpi seme  
                   oieri begira egon naiz luzaro. Ta barkatu, Aitor, baiñan ez ditut,  
                   nik ni bezein euskaldunak, ikusi. Ez nuke asarre daudenik,  
                   esango, baiñan ez, ZAZPIRAK-BAT diranik ere...
- Aitor            Oraindik, bai, andereño...! ZAZPIRAK-BAT dira oraindik...  
                   Baiñan gure etsaiak ez daude lo. Gure batasuna etzaie atsegin,  
                   eta alegin guztiak egiten ari dira gure batasun ori austearren.  
                   Eta euskaldun geranon artean, sortu digute burrukarik gaiztoe-  
                   na...! Bai, andereño, bai...! Arriskoa dago gure batasuna, ta  
                   orregatik ekarri ditut onera gaur, nere zazpi seme malteak...!  
                   Eta I. Andereñoa agertuko da ikusleen ezker-aldetik.
- I. Andereño Zu gurekin zeralako-edo, besteetan baiño alaituagoa arkitu  
                   dek gaur, gure Ama-Euskera, eta poz-pozik eman dit, eman  
                   ere, bere gonako zirrinda au.

Aitor Ez naiz arritzen...! Ondo bait-daki berak, zirrinda au zertarako bear dedan nik...!  
Lokarri onekin lotu bear dituzte orain zazpi makilla oiek.  
Eta zuek lan ori egiten dezuten artean, nere zazpi semeen billa noa ni...

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko da Aitor.

Gogor lotuko dituzte Andereñoak zazpi makillak baiñan errez askatzeko eran ere bai...

Eta ontan ari diran bitartean...

III. Andereño Ez al'dion ik, usai bereizi bat artzen, gona-zati oni...?

I. Andereño Bai, neska...! Ta euskerak usairik ba'lu, auxe dala, esango niken nik, euskera beraren usaia.

III. Andereño Eta ez den arritzeko...! Ez ote den gero auxe, gure euskera gai-xoa...?

I. Andereño Ez niken, ezetz esango. Baiñan emen ditun Aitor-eta, ta egin dezaiegun leku...!

Eta iruditegi-atzetik izkutatuko dira Andereño biak.

Aitor eta bere zazpi semeak agertuko dira ikusleen eskui-aldetik: Araba, Bizkai, Gipuzko, Nāparro, Benaparro, Lapurdi ta Zubero,.

Zazpi makillak dauden mai-ondora urreratuko da Aitor, eta iruditegian zabalduko dira besteak, bata-bestearen alboan.

Aitor (Iruditegian sartzearekin batera) Aurrera mutillak...! Ba'nian zuekin itz-egiteko gogoa. Gauza asko entzun zituat zuetzaz, eta egiak ote diran, jakin nai n̄kek: leen bezein indartsuak zeraten ala ez, alegia. Ortarako gertatu diat makilla-sorta au. Ba'ote dek zuen artean, zazpi makilla auek austeko, gauza dan bat...? Zer diok ik, Araba...? Ausiko ote ituzke...?

Araba N̄ik baietz uste...!

Aitor Eta ik, Bizkai...?

Bizkai Baietz esango nuke nik ere...!

Aitor Eta ik, Gipuzko...?

Gipuzko N̄ik ez det uste, besteak baiño gutxiago naizenik...!

Aitor Ondo zio...! Eta ik, Nāparro...?

Nāparro Orain artean beintzat, etzait indarrik falta izan...!

Aitor Egia dek...! Indartsuenetakoko bat izan aiz, i, beti. Baiñan bildur nauk, ez ote aizen pixkan-bat makaldu...! Eta zuek, Bidasoaz-aruzko nere semeok...?

Benaparro Baietz esango nuke nik...!

Aitor Eta ik, Lapurdi...?

Lapurdi N̄i ere, berdin esango nuke...!

Aitor Eta ik ere bai, Zubero. Ez alidek, ala...?

Zubero Ala da, bai, Aitor.

Aitor Aurretik nekian, zuen-guztion erantzuna...! Baiñan itzak, itz dituk, eta ni ez nautek betetzen. Joku bat bezela dek au, eta jokuan agertu bear izaten dituk indarrak. Ikusi dezagun bada, ea zuen-artean nor dan, zazpi makilla auek austeko gauza...?

Eta Araba'ri emango dio makilla-sorta. Eta onek ekiñaldi batzuek egin ondoren, Bizkai'ri emango dio, eta onek Gipuzko'ri, ta Gipuzko'k Nāparro'ri, ta Nāparro'k Bena-parro'ri, ta Benaparro'k Lapurdj'ri, ta Lapurdik Zubero'ri, ta Zubero'k Aitor'i berriro.

Azkarragoak ziñatela, uste nian. Zazpi makilla auek austeko etzenuten, gauza bat besterik, egin bear: lokarria kendu lenen-gotik, eta banaka-banaka ausi gero makillak. Begira zeñen-errez ausiko ditudan nik...!

Eta lokarria askatu ondoren, bana-banaka ausiko ditu Aitor'ek zazpi makillak.

Iruditegiko aora joango da gero, ta onela itz egingo die ikusleeri.

Ikasbide au eman nai izan dizutet zueri, euskaldun maiteori... Euskaldunak alkaturik biziko geran artean, ez da munduan, Euskal-erria menderatuko duan etsairik... Baiñan sakabana-tzen baldin bagera, etsairik txikienak menderatuko gaitu orduan, ez bait-gera iñor banaka...!

Baiñan ez aaztu, euskaldun maiteok, euskera dala, gu-danok lotzen gaituan lokarri bakarra...! Euskal-erriak ba, euskerak iraungo duan arte iraungo du, ta ez geiago...!

Zuen eskuetan dezute bada, Euskal-erriaren etorkjuna.

Txistularia agertuko da iruditegi-atzean eta AITOR'EN IZKUÑTZA ZAARRA jotzen asiko da, iruditegikoak eta ikusleak, danak batera, abestu dezaten.

Ikusleak

Aitor'en izkuntz zarra  
nai degu zabaldu  
munduaren aurrean  
gizonki azaldu;  
baldin gure zaiñetan  
odolik badegu  
euskaldunak euskeraz  
itz egin bear degu...!

ZAPIA

1974 Azaroa'k 28

Albisu ta Ayerdi'tar Anastasio'k

# DIDAKTIKA

## BERE ETA AREN ARAZOA

Bi berba eta itz auek, Bere eta Aren, erabiltzean benetako naastea sortzen degu. Begiratu ondoren ipintzen doguzan ildakoen "eskela"k. Oietako bi Donostia'ko El Diario Vasco'tik artuta daude Dagonillaren oian. Beste biak Bilbao'ko DEIA'tik jasoak Dagonillaren iruan. Egun baten aldea daukate, urtea eta illa berdiñak dira.

Donostia'ko aldizkariak AREÑ erabiltzen du eskela bietan. Bilbao'koak, berriz, BERE.

Berdin al da bat ala beste erabiltzea?

Orixen da kezka, arazoa eta korapilloa.

Kezka ori gaintzeko, arazoa argitzeko eta korapilloa askatzeko, badu gure maixu argia izandako D. Manuel'ek lantxo bat.

**2-VIII-92 - El Diario Vasco - Donostia**

**INMACULADA ESPARZA MUÑOZ  
ANDREA**

Irunen il zan 34 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena artu ondoren

-Goian bego-

Aren senarra: Andoni Iriarte; seme-alabak: Aiert eta Asier; gurasoak: Angel eta Rosario; ezkon ama: Ascensión; aizpa: Hortensia; ezkon anai-arrebak: Felix, Elisabete, Maria Jose, Juantxo eta Iñigo; osaba-izebak, lengusuak eta gainerako aideak.

Aren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztegia BIAR, ASTELENA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, LA SAGRADA FAMILIA parroki elizan, egingo diran ilelara. Aldez aurretik, milla esker.

Irunen, 1992ko abuztuaren 2an

Zuzenbidea: Luis Mariano, 4-3B,

OARRA: Gorputz laguntza biar, astelena, bere familia artean kanposantura egingo da.



## 2-VIII-92 - Donostia

### ANTONIA PAULA ESNAL IRIONDO ANDREA

Atzo il zan 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena artu ondoren  
**-Goian bego-**

**Aren alaba:** Martina; illobak: Luis Miguel eta Iñaki Aizpurua, Luis, Alberto, Ramon eta Anastasio Esnal; ezkon-illobak, lengusuak eta gainerako aideak.

Aren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR, IGANDEA, eguerdiko HAMABIETAÑ, herriko SALBADOR DEUNAREN parroki elizan, egingo den ilelara. Aldez aurretik, milla esker.

Legorretan, 1992ko abuztuaren 2an

OHARRA: Gorputza eliz atarian artuko da.

## 3-VIII-92 - DEIA - Bilbao

### BUENAVENTURA TOÑA LANDA ANDREA (Goian bego)

Ean il zan atzo, 1992. Abuztuaren 2an, 86 urte ebazala, Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artuta

**Bere loba:** Ane, Julen, Itziar (Fabian Navera-ren alarguna) eta Ibon Toña, Iñaki eta Maria Jesus Irusta (Frantzisko Arrizabalaga-ren alarguna), Eusebio Kerejeta, Marisa Muñoz, Miren Begoña Zuazua eta Beñen Bilbao; eta beste senideak.

Bere arimaren alde OTOITZ egin eta GAUR, astelena, illak 3, arratsaldeko ZAZPIRETAN, EAKo Jesuseko Andra Mariaren eleiz-nagusian izango diren illeta-elizkizun eta gorpuaurreango mezara joan zaitetzela eskatuten dautsue. Aldearenez, milla esker.  
Bizilekua: Ea.

(Il.Z.: Uribe - Gernika)

## 3-VIII-92 - Bilbao

### EUGENIO MARON ALBERDI (Goian bego)

Galdakaon il zan atzo, 1992. Abuztuaren 2an, 77 urte ebazala, Eleizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artuta

**Bere emazte,** Sotera Yurrebaso Larrea; alaba, Mari Luz eta Begoña; suin, Jabier Isasi eta Juan Carlos Valderrama; illoba, Aitziber, Garakoitz, Etor, Ibon eta Iker; koiñatu-koiñata, Juli Castillo (Bernardo Maron-en alarguna), Juan, Biktori (Anizeto Muniozgueren-en alarguna) eta Maria Begoña Yurrebaso (Daniel Perez-en alarguna) eta Angelita Uriarte; loba, lengusu eta beste senideak.

Bere arimaren alde OTOITZ egin eta GAUR, atelena, illak 3, arratsaldeko ZAZPI TERDIETAÑ, GALDAKAOko Andra Mariaren eleiz-nagusian izango diren ille-elizkizun eta gorpuaurreango mezara joan zaitetzela eskatuten dautsue. Aldearenez, milla esker.

Bizilekua: Urtebieta auzoa, 12-1. esk. - GALDAKAO.

Ona emen D. Manuel Lekuona'ren lantxoak:  
Ñoiz "bere"? Ñoiz "aren"?

## STATUS QUAESTIONIS

Erderazko "su" posesiboa, latinez, batzutan suus da; bestetan eius (eiusdem, ipsius).

Adibidez: a) "Oportebat Christum pati, et ita intrare in gloriam suam", "Verbum caro factum est... et vidimus gloriam eius".

Erderaz bi forma oiek beti su esaten dira: a) "entrar en su gloria"; b) "hemos visto su gloria".

Euskeraz, zer?

## HISTORIA APUR BAT

Latiñaren bide beretik ibilli izan dira beti laburditar, be-nafar eta zuberotar idazleak. Batzutan BERE erabiltzen dute, eta bestetan AREÑ edo BERAREÑ. Gero ikusiko dogu noiz bata, ta noiz bestea.

Bizkaitarrak gai ontan erderaren bideari jarraiko zaizkio: posesiboa beti ere BERE egitera jo izan dute. A. Lino'k, leengoan esan zigunez, A. Añibarro'k, *Axular'en* "Gero" bizkaieratu zuanean, AREÑ guztiak BERE itzuli zizkion.

Gai ontan oso otsaundikoa izan zan aspaldi batean, Orixe'k, Bilbao'n, "Euzkadi'n" zegola, bizkaitar batzuekin, Bizkai'ko oituraren aurka izan zuan polemika. Beti BERE erabiltze ori, erderakada zala, zion, ots! erderaren kutsu txar bat, solescismo bat, alegia.

Gipuzkoar klasikoak ondotxo jarraiki zaizkio Laburdi-aldeko ta latiniaren legeari. Eta guk ere, Liturgi-lanetan, bide oni beroni jarraitzen diogu.

Dana dala, ikusi dezagun orain, nola dan latiniaren eta beste aldekoen legea.

## "BERE" ETA "AREN"-EN LEGEA

Gauza argitzeko, ipiñi dezagun eskema bat:

Ñik, nere;

Zuk, zure;

Ark, bere;

- Batzutan bai, bestetan ez.

- Ñoiz bai, ta noiz ez?

Erantzun baño leenago, oartxo bat: Posesivo baten barruan (su baten barruan) beti ere pertsonal bat (ura bat) dabillega.

Orra orain legea: "Posesivoaren barruko pertsonala, eta esaeraren pertsonala bat-bera diranean, BERE izango da; beste bat danean, AREÑ, BERAREÑ. Eta guzti ori esaera bat-beraren barruan danean; posesiboa urrengo esaeran-edo baldin badago, berriz ere AREÑ izango da". "Pedro BERE etxean bizi da"; "Gu, AREÑ etxean bizi gera". Ori da legea.

Orain, esaera beraren barruko bi pertsonalak bat-bera izatea, lau eratarata gertatu ditek:

1) Esaeraren pertsonala, nominativo danean: "Ura (Pedro) BERE etxean bizi da"; ("Petrus in SUA domo habitat"); "Ark (Pedro'k) BERE etxean lan-egiten du"; ("Petrus in SUA domo laboran.

2) Esaeraren pertsonala, acusativo paciente danean: "Ura (Pedro) guk BERE etxean ikusi degu"; ("Vidimus Petrum in domo SUA").

3) Esaeraren pertsonala, dativo danean: "Arri (Pedro'ri) guk BERE etxean itz-egingo diogu"; ("In domo SUA loquemur Petro").

4) Esaeraren pertsonala, ablativoa danean: "Arekin (Pedro'rekin) BERE etxean egon giñan"; ("Cum Petro in domo SUA commorati sumus").

1'gn. erako nominatiboa (ura, Pedro) alda dezagun, eta leengo BERE ori, orain AREÑ biurtuko zaigu:

Ñi, AREÑ etxean bizi naiz;

Zu, AREÑ etxean bizi zera;

(Beste) Ura, AREÑ etxean bizi da;

Gu, AREÑ etxean bizj gera;

Zuek, AREÑ etxean bizi zerate;

Aiek, AREÑ etxean bizi dira.

Ala ere, 2'gn., 3'gn., ta 4'gn. erakoetan, aurreko nominatiboa aldatu arren, posesiboa BERE izango da ta ez AREÑ:

Ñik, ura (Pedro) BERE etxean ikusi det;

Zuk, arrj (Pedro'ri) BERE etxean itz-egin diozu;

Gu, arekin (Pedro'rekin) BERE etxean egongo gera.

Erderaz, berriz, guzti oietan beti SU esango dute: "Yo vivo en SU casa"; "Tú vives en SU casa" etab.

Bizkai'ko, gai ontako oituraren adibidetzat, ikus arako olerki bizkaitar ezagun-  
ezagun ura: "Askatasun - eguzkia / basotik urtenda // BERE ergia edonun / arin  
zabaltzen da". Gure legetan, "BERE argiaren" ordez, AREÑ (eguzkiaren) argja"  
bearko luke izan; edo-ta bestela, (eguzkiak) "BERE argia edonun arin zabaltzen  
DU", olerkiaren rima urratuaz.

## PRAXIS

I.-2'gn., 3'gn. eta 4'gn. eraetan, esaeraren nominatiboa, ura danean, esaera naasiak gertatu oi dira: "Ark (Joan'ek) Pedro BERE etxean ikusi du". Ez dakigu zeñena dan etxe ori, Joan'ena a la Pedro'rena. Dagon bezela, ba dirudi Joan'ena dala. Orregatik, Joan'ena ez baño, Pedro'rena balitz, BERE orren ordez beste formaren bat bearco litzake ipiñi: OÑENÑ, BEROÑENÑ, BERARENÑ, alegia: "Juan'ek Pedro OÑENÑ etxean.

II.— Ildakoen eskelaetan azaltzen diran "BERE emazte I. eta I. eta BERE seme-alaba I. ta I." oiek, Gipuzkoa'ko legearen barruan ez daude ondo. Eskelaetan ez dago esaera bat bakarrik: bi esaera datoz, bata bestearen ondotik: (aitaren eriotza, eta etzekoen eskabidea). Bigarren esaeran dagon posesivak, legez, AREÑ izan bear luke. Bañan AREÑ orrek, esaerari zerbait urrutiko edo aspaldiko kutsu ematen bait dio, AREÑ ori ez dator or ain ondo. Beragatik, edo-ta emen ere BERARENÑ edo BEROÑENÑ esan bearco litzake (BEROÑENÑ emazte I. eta I. k...). edo-ta, obeto, ezer ez: soil-soillik "Emazte I. eta I. k eta semea alaba I. eta I.k"...

III.—BERARENÑ ori, ederkitxo ageri da Eguerri-kanta batean:

"Kantatu dezaiogun / Aurtxo Jainkoari,

poz aundi bat emanaz / BERARENÑ Amari".

Egoki dago or BERARENÑ ORI; bañan ez legoke itsuski BERARENÑ orren lekuan AURRARENÑ ipintzea; ots! izen-ordekoaren lekuan, izena bera alegia.

Estilistikaz, jzen-ordekoak oso zallak dira egoki erabiltzen.

Beste arau praktiku, beraz: "izen-ordekoen ordez, izenak berak erabiltzea".

"Pertza-konpontzallea"  
AÑES

# ONDARROA'KO ABIZENAK

Jakiña da eleiz parroketako liburuak Trento'ko Batzarraren ondoren asi zirala eroaten. Origaitik XVI garren mendearen erdi aldera zabaldu ziran gejenak, batez be bateo, ezkontza eta eriotzei buruz.

Ba dira urte batzuk, gure errian ezagutu izan diran abizen guztien zerrenda atara nebala eurretatik.

Ez osoa.

1550 urtetik asita 1800 urte arteko lenengo abizenena.

Baiña itxas liburu zarretan bilatu izan dodaz gure erriko itxas-merkatari, txalopa jaube edo ta gidari eta abar.

Gaiñera len ez neban bigarren abizenik atara. Eta abizen orreik be ondarrutarrak dira, noizbaiten lenenak izanak.

Ba dirudi XVI garren mendeko abadeak, gaur aiñako ardurarik ez ebela artu liburuak zeatz eroaten.

Urte batzuk aztertu ta sarri ikusten dira beste zerrendak, batzuk lengo bateoak baiño lenago egiñak eta orrela urte ta egunen goraberak naastuten.

Itxuraz abadeen batzuk euren zerrenda berezia eroaten eben, edo zerrenda barik gogoetan euki.

1550 urtean amar bateo agertzen dira Parrokiko liburuetan. Auzo eta base-rrien abizenak nagusi.

Pedro de Asterrika,  
Maria de Miskia,  
Madalena de Gorozika,  
Pedro de Ubea,  
Domingo de Unda  
Ñikolas de Ayardia,  
Maria de Gorozika y Gastua  
Gabiola  
Puerto Amallo  
Zelaia-Berrosasi  
Orra lenengo urte osoko zerrenda.

1551 urtean ez da iñor agertzen. Baiña urte bate geroago, 1552-en oneik agertzen dira:

"En 26 días del mes de Febrero baptizé una criatura de Virriatua, sabe Dios de los padres, pusímosle Madalena a la dicha criatura. Ha por padrinos a Pedro de Zaldua y Madalena de Astuieta".

Beste bat: "Item en Prima de Junio de dicho anno baptizé una niña a Sarriko de Lexardi y su mujer Teresa. Pusímosle por nombre \_\_\_\_\_ (Orrelaxe, izenik ez da agertzen).

Beste agiri bat, izen barik.

Urrengo au: "Item en 5 de Junio de dicho anno baptizé un muchacho de San Juan de Barrenechea y la madre de dicha criatura era de Amoroto. Al dicho niño pusimos por nombre Miguel".

1553 urtean iru jaiotza agertzen dira bakarrik.

‡ 554'n amalau. Euretariako baten izena bakarrik. Izen berezia: **Inglesa**. "De una señora de Motrico". Ñunbaiten irkaurri izan dot aldi aretan ia oiturazko zala aitatasunik agertzen ez ebenei onelako izena ezartzea.

‡ 555 urtean, sei bateo.

‡ 556'en amasei. Bat abizen barik agertzen da. Domeka, de Motrico. Domeka emakume izenetan aurkitzen da aldi aretako agirietan.

‡ 557'n zortzi bateo. Bat, izenez bakarrik, Catalina. Gurasoa "forastero".

‡ 558 urtean amazortzi bateo. Emen be tartean Domeka de Ayardia bat.

‡ 559'en, amabost. Tartean betikoa, Pedro (abizenik ez) de Durango.

‡ 556en agertzen da beste izen polit bat: Andrasta.

‡ 574'n, Arrieta-Donestebe abizenak bateo baten eta gurasoak erromesak, "peregrinos".

‡ 577'n nba dago bat Gorozika-Aragoia, abizenduna. Ama "Catalina de Aragoia, moradora de la casería de Goitiniz".

Ba dagoz tartetan aitaren abizenik ez eta amarenagaz bakarrik, edo ta aita-rena bai ta amarenik ez.

Beste batzutan XX eta geiagorik ez. Bateatzera "me lo traje la señora de Motrico" eta abar. Bateoaren konzientzi estua, aitatasuna eskutuan lagata.

Amasei garren gizaldian, esan dodanez, liburuak 1550 urtean asita dagoz.

Ara bertan agertzen diran abizen ez-bardiñak 1550 tik ‡ 600 bitartean, bakoitzari eleiz liburuetan lenengo agerpena zein urtetan irakurten dan zeaz-tuaz.

Grafia gaurko erara aldatuta jartzen dot.

## A

Abaitua	1592	Armenza	‡ 562
Abaroa	1562	Arraiz	‡ 565
Agirre	1561	Apraiz	‡ 563
Aguero	1559	Arregia	1567
Aizla	1557	Arria	‡ 562
Alzelaegi	1594	Arriaga	‡ 556
Alipasolo	1554	Arrieta	‡ 574
Aliri	1552	Arriola	‡ 565
Alzaga	1565	Arrizurieta	1565
Alzola	1565	Artamiza	1555
Amesketa	1594	Askube	1561
Anakabe	1592	Astigarribia	1569
Andonaegi	1561	Assaola	1590
Angelua	1563	Azaola	1598
Ansola	1560	Assurra	1558
Apallua	1556	Asterrika	1550
Apraiz	1563	Astigarribia	1569
Aragoia	1577	Ateguren	1561
Aransolo	1593	Aulikiz	1554
Aranzibia	‡ 562	Ayardia	1550
Aranzubia	‡ 562	Azkarza	1577
Aranzamendi	‡ 569	Azkarretazabal	1578

Aretxaga	1554	Arezmendia	1556
Arezkurenaga	1560	Azpitarate	1561
Areskurandia	1562	Azteka	1596
Areskurinaga	1564		

## B

Baraiko	1578	Beltran	1568
Baranbio	1576	Bengoetxea	1596
Baranigo	1566	Bermeo	1555
Barrenetxea	1552	Berriatua	1561
Barroeta	1584	Berrosorrosi	1583
Basak. Basas	1584	Bidagorri	1561
Basterretxea	1554	Bidazabal	1594
Basterrolaza	1568	Bilbao	1565
Beitia	1599	Biziola	1579
Beitia	1599	Burgaña	1583
Belendiz	1568	Burgoa	1554

## D

Dostuzar	1593		
----------	------	--	--

## E

Egia	1585	Endaidi	1562
Eizagirre	1561	Etxaburu	1561
Elexpurua	1568	Etxano	1586
Elordi	1598	Etxebarria	1559
Elorriaga	1568	Etxenagusia	1585

## G

Gabiola	1550	Gillestegi	1557
Galarza	1577	Goikoetxea	1553
Galbei	1561	Goiria	1569
Galdona	1561	Goitia	1561
Galdua	1565	Goitiniz	1560
Garagarza	1568	Gomuzio	1559
Garro	1563	Goronda	1582
Gasturia	1593	Gorozika	1550
Gebara	1558	Gonzalez	1594
Gerrikaiz	1587	(De Soria)	

## I

Ibarra	1555	Iloro	1563
Ibarresarasua	1586	Imitola	1577

(gara	1565	Iramategi	1553
Ikutarte	1558	Iturriza (Motrikukua)	1589
Ikuza	1580	Izeta	1599

## J

Jarrolaza	1584	Jauregi	1556
-----------	------	---------	------

## K

Kareaga	1556	Kortazar	1582
Karkizano	1563		

## L

Larrako	1582	Lexardi	1552
Larrinaga	1579	Ljkona (Torrekoa)	1559
Lertxundi	1579		

## M

Makaia	1565	Mizkiri	1552
Makoaga	1596	Mokoaga	1587
Markoaga	1563	Muguruza	1561
Mendiolea	1593	Munibe	1561
Migelez de Ibarra	1567		
Mizkia	1550		

## N

Ñafarmendi	1589		
------------	------	--	--

## O

Obekola	1554	Ondarroa	1579
Olabarrieta	1584	Ontxa	1564
Olabarria	1556	Oribia	1562
Olabe	1558	Oriosolo	1569
Olarra	1579	Orueta	1562
Olarriaga	1586	Otxoa (de Etxeandia)	1558

## P

Plaza	1581	Puerto	1550
-------	------	--------	------

## R

Renteria	1594	Romo	1559
----------	------	------	------

## S

Sagarraga	1 565	Sasturri	1565
Santa Cruz	1576	Sausarren	1554
Saldua	1588	Sustaeta	1 588
Sarasua	1 567		

## T

Torrealde	1561	Txurruka	1563
-----------	------	----------	------

## U

Ubeagoitia	1577	Urbina	1579
Ubea	1 550	Urkiaga	1 558
Ubillia	1558	Urkiagabaso	1564
Ugarte	1563	Uriarte-Jauregi	1582
Ugarteburu	1 587	Urreztieta	1 578
Unda	1550	Urriola	1580
		Urrunaga	1584

## Y

Yarza	1 584		
-------	-------	--	--

## Z

Zabala	1 579	Zapatarikua	1584
Zaldua	1588	Zelai	1550
Zamora	1591	Zezermendia	1598

Danetara, esandako denboraldian, 1550/1600 bitartean, 859 agiri edo "partida" dagoz. Abizen ezbaridiñak 177 dira. Ba dira amaika aldakuntza pitin bat daukenak, letra edo silabaen batena, baiña gurasoen deitura eta abar aztertuta igarten da aozkerako aldakuntzaren baten ondorenak dirala ez-bar-dintasun orreik.

Baiña ba dagoz beste ainbat abizen, amarenak, bigarren lez agertzen diranak edo ta denboraldi aretako agirietan, lenengo abizenetan agertzen ez diranak eta goiko zerrendetan agertzen ez diranak.

Ezin ukatu areik be iñoiz lenengo abizenak izango ziranik.

Ara euren zerrenda. Berrogetak dira:

Amallo	1550	Galbe	1576
Astaieta	1 552	Ikaran	1557
Aiarza	1560	Irurre	1566
Antxia	1564	Ikuza	1588
Aia	1 570	Ikaieta	1589
Azkarai	1 579	Iragorri	1589
Arregiaga	1584	Ibiri	1592
Allurralde	1594	Kurpita	1592



Aberasturi (Arabakoa)	1594	Legina	1561
Balzola	1560	Maguregi	1555
Berreño	1565	Meabelzu	1577
Beltran de Arana	1568	Mu niosolo	1593
Bekoetxea	1574	Migelez de Renteria	1557
Beliotegi (Deba)	1589	Okoillo	1553
Cassasua	1580	Orongua	1559
Donestebe	1574	Orio	1574
Egurrola	1559	Otegi	1584
Etxeandia	1565	Pertika	1596
Eibar	1571	Solarte	1594
Etxaniz	1592	Tellaetxea	1557
Gastua	1550	Txakartegi	1591
Garduza	1570	Urkiro	1576

Itxasoetako gorabera zarrak irakurtean, sarri billatzen dira abizen batzuk merkataritzan ezagunak ziranenak, edo ta emen euren etxe zar eta armariak be euki zituen batzuenak. Ezpai barik parroko liburuak baiño aurretik egon ziranak.

Or nebillen beti eleizatik kanpora, orduko abizenen zerrendaren bat billatu nairik.

Eta erroltza bat aurkitu dot Udaletxean: "Libro padron para hazer el repartimiento y derrama concejil segund huso y costumbre della. 1541".

Ez da kaskarrari asko eragin bear konturatzeko 1541 urtean egozan bizi lagun oneik urteak eroango zituela errian. Eun eta sei lagun dira eta zerrenda osoan argitaratzen da, danak jakin dagien gitxi gorabera noiztik euren abizena Ondarroan ba egoan.

Orrez gain abizen batzuk azpimarratuta agertzen dira. Zegaitik? Ba azpimarratutako orreik ez diralako agertzen eleizako liburuetan 1550 tik 1600 bitartean. Beraz goragoko agertutako zerrendetan ez diralako sartzen.

Abadea	Arria	Etxebarria
Agiriano	Arriaga	Etxebarrieta
Agirre	Arriola	Elgezabal
Aguero	Arronategi	Egurrola
Aia	Artolazaga	Eizagirre
Albis	Asensio	Eizmendi
Alegria	Asterrika	Elantxo
Andonaegi	Ategiuren	Elexalde
Ansola	Aulikiz	Elexpurua
Apallua	Ayardia	Elgeta
Aranaga	Beranigo	Elorriaga
Arano	Barinaga	Estakona
Aransolo	Belendiz	Gabiola
Aranzamendi	Bermeo	Galaroa
Aranzibia	Berriatua	Galarza
Aretxaga	Bilbao	Galdona
Arezmendia	Berroia	Gallate
Arrangiz	Burgoa	Ganboa
Arrasate	Dendaiddi	Garro

**Goikolea**

Goitia

Goitiniz

Gorozika

**Gorostieta**

Guillestegi

**Irarrazabal****Isasoeta****Ibarguren**

Ibarra

Iloro

**Inprubidi**

Iramategi

**Iraola**

Iturrino

Iturriza

**Izea**

Jauregi; Heria

**Labeaga****Laka****Lasao****Lekuia**

Likona

**Lorriaga****Markina****Marzana****Meabe****Monguruza**

Olabe

**Olaso**

Orbea

**Ormaetxea**

Orobiao

Oriosol

Puerto

Renteria

Romo

Sagarraga

Sarasua

**Sestona**

Sustaeta

**Tellaetxerí****Tellarilea**

Ubilla

Unda

Urkiaga

Urresti

Zumarraga

Zarragoen aukerarik ba gendu, pozik agertuko gendukez. Baiña gaitz.

**Beste abizenak**

Ñire errian

Peru bi, gazte bi

iñok ez daki

izenik.

Bata KOLAXO  
dirudi, ZIZEROÑ,

Besteak

MARRAXO

Ñire kalian

atso bi,

zenbat urteko

ez jakin

Bata deitzen da

MIELGI,

bestea barriz

LUPIÑI.

Ñire etxian

mutil bi,

eureri lotsaz

ez asi.

Batari dei

IXKIRI,

besteari

AIÑGIRI.

Ñire aurrian

neska bi

beti eskola

igesi.

Bateri ots

KAÑIKI,

besteari

DÑ KATOÑ

Ñire auzoan

ume bi,

prakak buztita

agiri

Bata deitzen da

PUXIKI,

eta bestea

AÑTXOBI.

Gure txalupan

lagun bi,

argala a,

au lodi.

Batak izentzat

SARDIÑI,

eta besteak

IXURDI.

Gure ingurun

beti tirrika

alkarri.

batak entzuten

besteak barriz

POÑGOLI.

Gure eleizan

apaiz bi,

sermoitan beti

gogorki.

Batak dana dau

IÑPERÑU,

batek bigunau

PEKATU.

Gure erriko

izenik

Karteru berak

ez daki.

Deitzen ba da

AZPIRI,

gaiñean jarri

TXIMISTI.

ZUBIKARAITAR AUGUSTIÑ

# AITA VILLASANTE'REN AOLKUAK

Eusko Jaurlaritza'ko, Izkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitaratzen duan, "Euskeraren Berripaperak" izeneko aldizkarian, Uztailleko alean, Aita Luis Villasante'k idatzitako "Euskeraren auziaz" liburutik artutako, "Ahaztu beharreko irudipenak" irakurri ondoren txundituta geratu naiz, bada idazkearen ustez, "badira euskeraren auziaren inguruan zenbait oker, askotan itsu-itsuan irensten direnak eta gauzak behar dan moduan planteatzeko burutik kendu beharrekoak".

**Lenengo atalean dionez, "Herritik desagertua eta zearo itzalia den hizkun askatasunaren edo abertzaletasunaren indarrez berpiztuko dala uste izatea".**

Gure gizaldjkoak, guda maltzur baten bitartez menperatuak, ankazpiratuak eta zigortuak izan giñanok, gure biotzetan eta gure sendietan, gure izkuntzaren txingar-atsari ez ba'genion eutsi, zer gertatuko zan gure aoetatik baztertu izan zuten izkuntzarekin ez ba'zan jzan abertzaletasunaren eragiñez?

Bigarren atalean, era ontan mintzatzen da: "Hizkuntza gure identitatearen ezaugarri nagusia, gure arimaren odola, eta abar dela uste izatea. Hizkuntzak zeinu-sistemak dira, gizonek elkarri beren burutapenak adierazteko erabiltzen dituztenak. Beste balioak erantsiak dira".

Gure izkuntza, euskera maitea, ez al da jzan betidanik Euskal erriaren ezaugarririk garrantzjtsuena? Euskal erria izenak berak ez al du esaten euskeraz mintzatzen dan erria, tokia edo aberria dala, eta "Euskaldun" itzarekin ez da euskera duana edo mintzatzen duana, eta era berean, euskotarra adierazten. Ortaz, gure izkuntza ez al da gure "identjtatea" edo nortasuna adjerazten duana? Abertzale itzak ez al du aberri-zale edo erri-maitale esan nai, eta aberri-maitale baldin ba'da ez al du era berean bere izkuntza maite?

Bostgarren atalean, zera dio... "Batuetan aipatzen dira hizkuntzaren esku-bideak ere... Baiña hizkuntza ez da pertsona, tresna bajzik. Lagun bati entzuna datorkit gogora "eta euskera galduko balitz", zer? Ez gjñake orregatjk mutu biurtuko. Izango genuke beste tresnaren bat bear diran gauzak adierazteko".

Bai, noski, baiña, Euskal erria izena, aldatu egin bearko litzaioke. Euskerarik gabeko Euskal erria, alerik gabeko ale-zorroa bezala izango bai-litzake; gauza utsa, ezer ez, eta gu ez giñake euskaldunak izango, eta era berean, lurralde au ez litzake Euskal erria izango.

Ñola nai ere, ezin arrotuko gera geiegi, bada, gauzak djjoazen eran nik ez dakit zer ikusteko gauden, bada, abertzale alderdiek naiz euren ustez indartzeari dirala uste izan, euskalzaletasuna alderdj oien barruan gero ta gutxiago ikusten da ta arazo au benetan penagarria dala iruditzen zait. Abertzaletasunaren izenean, euskara, gure izkuntza, asko goraiatu eta, bitartean, politika-arazo guztiak edo geienak eta eguneroko eginbearretan gaztelaniz mintzatuz eta azalduz egin. Egia da aurrek ikastoletan euskera eta euskeraz ikasten dutela eta bertako giroan euskera erabiltzen dutela, baiña ikusirik gizarteko giroa ezkor egotekoa da. Aurtxoei euskeraz itz egin baiña gurasoek euren artean eta gjzarteko artu-emanetan, barra-barra erderaz mintzatu.

Azkenik, Aita Villasante'k idatzitako "Ahaztu beharreko irudipenak" esaldia-  
ren ordeaz, beste aukerak gogora erazi nai ditut:

Tamalgarria gertatzen dala, euskera ikasji lanbide bat lortzeko eskatzen  
duten baldintza gainditzeko eta bein lortu ezker, or konpon!

Jaurlaritzak, Foru Aldundie'k eta Udal-batza'k argitaratzen dituzten iragar-  
kietan -milloiak ordainduz- erabiltzen duten izkuntza berezia dalako eta egiten  
dituzten itzulpenak zaillak eta ulerteziñak gertatzen diralako erritarrentzat,  
ondorioa jakiña izaten da, erderaz idatzitakoak irakurri euskerazkoak bazter-  
tuz.

Itzaldietan, asieran itz batzuk entzuleak agurtuz euskeraz egin eta bere bai-  
tan, "euskal legearekin kunplitu dugu" esanez bezala, bereala erderan murgil-  
du eta andiak aurrera jo-ta-ke gaztelaniz mintzatzen dira. Alde ederra dago  
"Olinpiadetan" entzun dugunarekin!

Jokabide aukerak ez dira batere onuragarriak idatzki ontan aipatzen dan egira  
aldatzeko, eta, nere uste apalean, euskal giroa moteltzen ari da eta abertzale-  
tasuna epeltzen edo oztutzen gure gizartekoen artean, berekoikeria bitarteko  
dala, agintea, ogibidea, erosotasuna eta antzeko gauzak lortzeko zaletasuna  
ugaltzen ari dan arabera. Kezkagarria benetan!

KORTAJAREÑA TAR AÑDOÑI

## **Aita L. Villasanteren ustez**

*1. Herriatik desagertua eta zeharo itzalia den hizkuntza askatasunaren edo  
abertzaletasunaren indarrez berpiztuko dela uste izatea. (noiz, Irlanda edo  
Ameriketako kasuetan adibidez, kontrara ere gertatu izan da.*

*2. Hizkuntza gure identitatearen ezaugarri nagusia, gure arimaren odola,  
etab., dela uste izatea. Hizkuntzak zeinu-sistemak dira, gizonak elkarri beren  
burutapenak adierazteko erabiltzen dituztenak. Beste balioak erantsiak dira.*

*3. Euskara hizkuntza oso zaharra dela, bere inguruan dituen guztiak baiño  
lehenagokoa, euskaldunen harrokeriarako askotan erabili izan den leloa da.  
Esan daiteke ordea, gaur toki honetan bere aldameneko beste hizkuntzak bai-  
no zaharragoa dela.*

*4. Hizkuntza batzuk berez bikain eta goi mailakoak eta beste batzuk ezgau-  
za eta desegokiak dira. Zenbaiten ustez (Larramendi eta apologistak), lehen  
sailean legoke euskara. Beste batzuen aburuz (Unamuno), bigarrenen. Ez bat  
eta ez beste.*

*5. Batzuetan aipatzen dira hizkuntzen eskubideak ere... Baiña hizkuntza ez  
da pertsona, tresna baizik. Lagun bati entzuna datorkit gogora: "Eta euskara  
galduko balitz, zer? Ez ginatke horregatik mutu bihurtuko. Izango genuke  
beste tresnaren bat behar diren gauzak adierazteko".*

("Euskararen Berripapera"tik)

# "ELBIRE ANDEREÑOA" VIII SARIKETA

Aurkeztutako ipuiñak

Maillak:

	A	B	D	E	Guztira
Ondarroako TX. AGIRRE ikastola		16	14		30
Idiazabal'go Aita Iparragirre, eskola			8		8
Andoain'go Aita Larramendi ikast.		1			1
Deba'ko Katekesia			1	6	7
Beasainigo Ekaitz Goikoetxea			1		1
Donosti'ko Artze tar Amala	1				1
Belate'ko San Julian Erbiti			1		1
Donosti'ko Orixe Ikastola		16	13	1	30
Urumea ikastola	1	96	69	50	216
	2	129	107	57	295

Bildutako lanetatik sailkapen bat egin zan eta euretatik egokienak aukeratu era onetan:

Euskerazaintza'k Donostia'ko Getaria kaleko 21'garrenean daukan idazgelan, Agirre'tar Maria Dolores, Yurramendi'tar Felipe, Oñatibia'tar Manuel eta Kortajarena'tar Andoni jaun-andreak, ELBIRE AÑDEREÑO A VIII ipuin sariketara aurkeztutako lanak aztertze ko epai-maia osaturik, azterketa sakon bat egin ondoren, saríak era ontan banatzea erabaki dute:

## A MAILLA

1'go seria:	"Itzarmen baten zailtasunak", Ekintza ikastolako, Artze'tar Amaia'k idatzia .....	15.000 pta.
2'gn saria	"Praisku zan", Urumea ikastolako, Etxeberría'tar Joxe Juan'ek idatzia .....	10.000 pta.

## B MAILLA

1'go saria	"Agur laztana, agur" Urume ikastolako Larburu'tar Maite'k idatzia .....	10.000 pta.
2'gn. saria:	"Donostia'ko klima aldaketa", Orixe ikastolako Zabala'tar Josune'k idatzia .....	8.000 pta.
3'gn. saria:	"Munduko gauza ederrena" Urumea ikastolako, Guerrero'tar Aitziber'ek idatzia .....	6.000 pta.

4' gn (a) saria:	"Katu zuurraren misio bat", Urume ikastolako, Irazusta'tar M.ª Karmen'ek idatzia .....	4.000 pta.
4'gn (b) sarja:	"Sorgindurik", Urume ikastolako, Zubillaga'tar Oiane'k idatzia .....	4.000 pta.

#### D MAILLA

1'go saria:	"Aitor eta Sorgiña", Ondarroa'ko Txomin Agirre ikastolako, Lasarte'tar Ñekane'k idatzia .....	8.000 pta.
2' gn. saria:	"Itasoko katua", Urume ikastolako, Garaiaritar Ñagore'k idatzia .....	6.000 pta.
3'gn. saria:	"Mutil baten eta sorgin baten istoria", Ondarroa'ko ikastolako, Aulestia'tar Jugatz'ek idatzia .....	4.000 pta.
4'gn. (a) saria:	"Lagun taldearen istoria", Beasain'go Alkartasuna Lizeo'ko Goikoetxea'tar Ekaitz'ek idatzia .....	2.000 pta.
4'gn (b) saria:	"Abentura ipuinen errian", Urume ikastolako, Edilli'tar Izaskun'ek idatzia .....	2.000 pta.

#### E MAILLA

1'go saria:	"Ondartza" Urumea ikastolako, Arruarte'tar Aloña'k idatzia .....	6.000 pta.
2'gn. saria:	"San Juan sua", Urumea ikastolako, Urretabizkaia'tar Ane'k idatzia .....	4.000 pta.
3'gn. saria:	"Pello", Deba'ko Katekesis'eko, Esnaola'tar Mikel'ek idatzia .....	2.000 pta.
4'gn saria:	"Izadia" Orixe ikastolako, Sanz Atorrasagasti'tar Ikuski'k idatzia .....	1.000 pta.

#### OLERKI SAILLA

MUÑGIA'n, Arrinda'tar Anes, Zubikarai'tar Augustin, Olazaritar Martin, Solozabalidar Paulin, eta Zubiri'tar Iñaki jaunak, "ELBIRE AÑDEREÑOIA VIII" Olerki sariketara aurkeztutako lanak epaitzeko izendatuak izan ziranak bildurik, eta Kortajarena'tar Andoni idazkari bezala, alde aurrez eman zitzaizkien aipatutako leiaketara aurkeztu ziran olerki-lanak aztertu ondoren, sariak era ontan banatzea erabaki dute:

1'go saria:	40.000 peztakin saritua, "Gabonak" izenez aurkeztua, A. Esnaola'k idatzia
2'gn. saria:	30.000 peztakin saritua, "Euskeraren geroa" izenez aurkeztua, Jose Mari Murua'k idatzia
3'gn. saria:	25.000 peztakin saritua, "Ikusi makusi" izenez aurkeztua, Xabier Olaso Bengoa'k Idatzia
4'gn saria:	20.000 peztakin saritua "Askatasun irrintzia" izenez aurkeztua, Egaña'tar Gotzon'ek idatzia

# MUNGIA-ALDEKO ESAKERAK

- 1.- **Aberatsa, popan atsa.**
- 2.- Mungialdeko biorra, txikerra ta buru gogorra.
- 3.- Jakiñek ez deko kalterik.
- 4.- Ustia erdi ustel.
- 5.- Asto petrolio.
- 6.- Aurrian ederra, atzian gerra.
- 7.- Txitxen-pitxean; Txiri-txiri; Pitxike-pitxike.
- 8.- Eurie ei da sano.
- 9.- Orerri zoratu ein yako.
- 10.- Orrek buruek emoten ba deutso, eiten dau.
- 11.- Orrek dirue satza deko.
- 12.- Oiñetako merkiak ez dau kaderia asko berotan.
- 13.- Salto baten eroango zaitut.
- 14.- Alper baten esana: Nik izerdie oian baiño ez dot emoten.
- 15.- Txakurrak eularike (uluke) asteko desgrazi baten señaia da.
- 16.- Orren berbak aiziak eroanak.
- 17.- Geldi zauz "txintxilimailluroi!
- 18.- Aittu katue begi nabar-nabarrakaz.
- 19.- Orj ume "makarra".
- 20.- Gizon orrek lupuek dekoz.
- 21.- Kanpokoa zurtzat eta etxekoa iñuzentetzat.
- 22.- Geian egotjarren ez da obia.
- 23.- Zenbat eta ekiñau, txarrau.
- 24.- Ekiñe txarra da.
- 25.- **Ikutu, apurtu.**
- 26.- Ondo ibili, gitxi gasteu eta sobrak amari.
- 27.- San Markoatan otzak auntze il zauan Gatiken.
- 28.- Ez dau inbirie baiño gaiso txarraurik munduen.
- 29.- **Guzurre, eperdien erdien azurre.**
- 30.- **Saldue, galdue.**
- 31.- Epelak emon deutsoz.
- 32.- Biargin onak, ez deko era txarrik.
- 33.- Ñon erromeri an Santa Mari.
- 34.- **Asi da il kanpaiak denborak baiño ariñago joten.**
- 35.- **Dana daki ta ezer ez daki.**
- 36.- Ez dau lekurik ala? Zeruen be orrenbeste leku bakozu egon pozik.
- 37.- **Mundu onetako iru gauza eziñak onek dire:**  
**Pobrearen arrazoia,**  
**Alperraren abilidadia,**  
**Azagoko sugarrien berotasune.**
- 38.- **Zu espabiletan zaranerako Jaungoikuak gauza egun eingo dau.**
- 39.- **Diruek txakurre be dantzan ipinten dau.**

- 40.- Begietan adi ez dauana, ez da giateko ona.
- 41.- Ñegar eta barre, kaka berde.
- 42.- Begi gustiek ez dabie era batera negar eiten.
- 43.- Arin eginiko biarra, alperriko biarra.
- 44.- Joan eta etorri kapela gorri.
- 45.- **Eta gero? Otz ez dana bero.**
- 46.- Zelan dekozu izena? Okela gizona. Eta apellidue? Juan Barkillerue.
- 47.- Iru, goda bete miru. Kolkua bete diru.
- 48.- Zure berbiak auntzan gaberdiko estulek baiño gitxiau balio dau.
- 49.- Dekonak sobran eta ez dekonak faltan.
- 50.- Orrek barakillek baiño odol gitxiau deko.
- 51.- Mungie, lapur guztien abie.
- 52.- **Urak dakarrena urak daroa.**
- 53.- Gaua gauekontzat eta egune egunezkoentzat.
- 54.- **Begi guztiek ez dabe bardin ikusten.**
- 55.- **Esanau eta txarrau.**
- 56.- **Zarrena ta txarrena.**
- 57.- **Zorri aberastue iñori ostue.**
- 58.- Zenbat eta zarrau, txarrau.
- 59.- Ez dau iñongo jokalaririk (apostularirik) egin dauanik praka barririk.
- 60.- Ñi nausi edo buru ausi.
- 61.- Zamalloa, artoa ta makalloa.
- 62.- Errosarioa eskuan ta deabrue kolkoan.
- 63.- Auntzen Barrabasen pautse.
- 64.- A zer pareta, karakola ta bareta.
- 65.- Bostak eta illune, txarrie ilteko egune.
- 66.- Asto bat il eta beste bat biztu, kittu.
- 67.- Dekonak deko, eztekonak bateko.
- 68.- Azak eta porruak eroan ditu neguak.

LEGARRETA TAR ASIER



# GURE FOLKLOREA ONDARROA

*Kopla onein batzaillea, ez zan izan gizon jakintsu ikasia. Bai erri jakintza oartu, arnastu eta bizi ebana Segundo Bedialauneta, 1937'n, guda ostean atxilotu eta il ebena, bizarkentzailea zan. Gizon ixil, zintzo jator eta leiiala benetan. Espiritu utsa. Eta bere ogibidea baztertu barik, Ondarroa'ko erri-miñak eta euzkeraren maitasunak jota, "Txori Erreka" edo ta "Zubi-alde" izenordez "Euzkadi" egunkarian zatika agertu zitun 1927 urtean, berak nekez, baiña atsegiñez batutako pitxiak.*

*Ara batzuk:*

1.- Kukuan prakak eta  
Erregiñan goñia,  
San Tomas eguneko  
yabonaduria.

2.- Upin upin de la bandera,  
auntzak igon dau laba ganera.  
Laba ganetik Txantxala'nera,  
Txantxala'netik etxera,  
ogiyen pizkat ar... tze... ra.

3.- Gabon gaba zeta  
Errosa Kisketa,  
Drau, drau, drau!... (Atea joaz).  
Sardiña Makallau.

4.- Aitita morokillo  
pipi artzaillea,  
pipiak erre dautso  
bere sur luzia.

5.- Papiak erre dautso  
surraren puntia,  
nayago erre ba leutso  
enparau gustia.

6.- Aitita ta amuna  
biyak egurretan,  
aizkoria galdu eta  
biyak errixetan.

7.- Ai, ai, ai...  
Emen dator ontziya  
itu palokua,  
bera bisitazera  
karabiñerua.

8.- Ai, ai, ai...  
Itxaso aldetik dauko bentania,  
andixek botaten dautso  
maitiari sokia.

9.- Ai, ai, al  
mutilla, txapela gorria,  
ai, ai, ai,  
neskatxa pañuelo zuria.

10.- Teresa Teresa  
esnia edatera  
Santa Kutz mendiko  
zelaira.

11.- Amona gona gorri  
aitona kaska zuri,  
gure soluan zein dabil  
aza buruak ostutzen?  
Ala kixkillera,  
ala samurrera,  
bira beste aldera.

12.- Andra Josepa tronpeta  
erreberentzia lurrera.  
Jarri belauniko,  
adora Jesukristo,  
Gure baratzen zer dago?  
Aza buruak loratzen,  
aitatxo ta amatxo  
urra urra pitxitxo.

13.- Txardan, txardan,  
txulien txulien  
mekeke-mekeke,  
artu daya pelotia.

- 14.- Zirriketa marraketa  
kitarria,  
botikaixuan  
alabia.
- 15.- Zuzkulu maskulu  
eragiten,  
zure lepua  
para egiten.
- 16.- Aitite dala tutulu mendi,  
amuma dala mazuzta,  
aita jua da Bitoriyana  
ama munduan artuta.
- 17.- Lua lua Santa Lua  
zeru altuko Jaungoikua,  
eragiyozu umetxu oni  
ordu bi edo iruko lua.
- 18.- Lo-lotxu engañadore,  
traidore paltsua,  
zetan engañau dozu  
gure umetxua?
- 19.- Aitita mokuando,  
Sindo konpañia,  
emen gatoz lau lagun,  
emon eiguzu limosnia.
- 20.- Txantxala piko-monte,  
txantxala pikote,  
basamosala kristiana  
(belauniko etzunda) egoten.
- 21.- Erromillote, erromillote  
txakurrai bustana jan diote,  
atia jo ta aurrera  
Erroke'n semia jao da.
- 22.- Bela bela mundu guztitik,  
kana bat ostu dabe Lion Pepenetik  
eztabe ostu baiña gorderik dago  
Marie Mutrikuarra begira dago.  
Ortuan perejilla,  
saleruen gatza,  
atera platerera  
jan daigun lebatza.
- 23.- Pio Piolin  
Matio txanbolin,  
andrak elixara,  
gixonak tabernara,  
Pio piolin  
Matio txanbolim,
- arrañak arrapau dauz  
Txibi korañakin.
- 24.- Jose Jose Kitarra,  
Antxibixako bizarra,  
botako neuke botako neuke  
emendik araño uzkarra.
- 25.- Antonio Goikiko tinbolinterua,  
poltsan diru gitxi baña  
bai enbusterua.
- 26.- Antoniok koplak esan,  
dirua poltsara,  
amaika zoro gangar  
batzen da plazara.
- 27.- Pinto ta kinto  
biyak txixa erreka bana egin,  
eta biyak ito  
tropa ta tropa  
trama matrallo,  
ilten danian kanposantura.
- 28.- En-da bat, bi, iru,  
enda bat, bi, iru...  
enda bat. (Sokako jolasa)
- 29.- Txarra bat daukot  
loraz beterik  
Ama Birgiña  
loretakuentzat (Seaska abestia)
- 30.- Goiak panpoxak eta  
bai beiak baldrasak,  
Amoton ikusi nitun  
Laka'ko neskatxak.
- 31.- Iru ta iru sei dira,  
beste iru bederatzi,  
obe geunke neska zar  
orreik baño ardaa merke  
ba lebil.
- 32.- Altza binbolin eta  
urra binboliña  
andra buru ariñak  
edan txakoliña
- 33.- 0 mutil gaste begi gorri,  
nun artu dozu arrain ori?  
Sasiolako arroketa  
arratsaldeko ordubiyetan.

# ERRI-ESAERAK

Gipuzkoa'ko erri batzuei buruzkoak

— Altuan Arantzazu, bajuan Oñati, eder galanten billa ei dabil beti.

—Azpeitiarrak xapuak.

— Alegitarrak trintxarriak.

— Amezketarrak euliak.

—Altzagatarrak zakurrak.

— Aramarrak idiak.

—Altzola Mendaroetan jende ona arraietan.

—Arrotarrak arro, zeztarrak sesto, Arroarren ondakiñak Zeztarrak jango, baiña ez emango.

- Asteasu, tronpa zulo.

—Asteasuko kanpaiak galde egin zuan: Dirua nun?-Alkizakoak erantzun: Leten eta Perun.

— Ataundarrak otsoak.

— Ataun, erreta yan zagun.

— Ataunen eta Zegaman, egunez ikusi ta gaez eraman.

— Beasaindarrak bareak.

— Azkarate ta Bedayo, alkar ezin erayo.

—Bat, bi, iru, lau, amar, amalau; aitak saldu nau, amak erosi nau, Beasain-go alkate zarrak preso sartu nau.

— Berez bear Billabonakoa.

— Bergara, ikusi ta igara.

— Deba ta Mendaro, eldu ta igaro.

— Donostian Donosti, Gorostian gorosti.

— Elgetan ogi beroa diruetan, aize otza doan.

— Ernialde, asto erria.

—Errezil, nekez bizi ta errez

— Gatzagan zentzuna.

— Gabiri, leku askotatik agiri.

— Gabirin arto tartean gizonak agiri.

— Gatzagan gatza, koipea Mutrikun, arekin egiten dira azak bigUn-bigun.

— Idiazabaidarrak azeriak.

— Larraul, labako erretzaileak.

—Lazkaotarrak, antzarrak.

—Oñatiarrak txantxikuak.

—Oñatiarrak igelak.

—Tolosarrak aizeak.

—Zegamatarrak belak.

# ESALDI JATORRAK

- Larunbatean BIAK ERE agertuko ziñatela uste nuen,
  - Etxea LUR TA GULI I erosi al dezu?
  - Lur MUTUR batekin bakarrik.
  - Gaur ere EUDIA EGIÑA DA!
  - GERO ta drogazale GEIAGO DAGO.
  - Zu etxe ontara joaten al zera?
  - Len bai, baiña bein ikaratu nitzan eta ez ÑAGO BERRIZ JOAÑIK...
- (Maindire -tolestatzen)
- ERDI-AÑ LLEAN jarri ezazu.
  - Milagros'ek deitu, baiña ez du DEITZEKORIK esan.
  - ÑERE BURUA bakarrik aurkitzen dut.
  - ETSI-ETSIAÑ bizi da.
  - ÑERE BURUA ondo aurkitu ez ba'nu, ez nintzake joango.
  - GAUZA ÑAIZ eta joan egingo naiz.
  - Bide onetan EGUÑAÑ- BURUAÑ zenbat kaminoi ibiltzen ote da?
  - Komunista alajaiña! EZ TA BA EZERTXO ERE...
  - Atzo LLORTZERIK ez nuen izan.
  - Dana jaso al dezu?
  - USTE7 BAI.
  - Aurrak Aupetekua bota du.- EZ TTIKIYA ere...
  - Eudia oso ZAILDUA dago!
  - Eudia ARI AL DU?- EUDI ITXURA aundia du.
  - Zeintzuk izan dira?
  - Ayek izan OTE DIRAÑ...
  - AURREZ-ALDETIK ikusi bear zan ori.
  - Zeiñen GOGAIKAYA izan da?
  - OTZ AUÑDIA EGITEÑ DUAÑ OÑTAÑ, attona ez da etxetik irteten.
  - Orain ere eudia AL DA?

OÑATIBIA'TAR MAÑU'k jasotakoak